




Hozkuntza eta Internet

33.zk
2009ko abendua

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

IDEA

33.zk 2009ko abendua

Nafarroako Eskola Kontseiluaren aldiskaria

ZUZENDARITZA, ERREALIZAZIOA ETA DISEINUA

Nafarroako Eskola Kontseilua

ITZULPENAK


Euskarabidea

IMPRIMITZAILEA

Ona, Industria Gráfica S.A.

LEGE-GORDAILUA:

NA-1482/2006



2. Orrialde Luis Iza Dorronsoro
Internet eta oinarritzko gaitasunen garapena



6. Orrialde Eduardo Larequi García
Blogak hezkuntza baliabide gisa



11. Orrialde Jesús Fernández Cid Román eta Juan Luís Alonso Oliva
"Joomla" eduki-kudeatzailea ikastetxeen web atari gisa



16. Orrialde Sagrario Crespo.
Formaziorako On line tresnak



20. Orrialde Celestino Arteta Iribarren
WEB 2.0: IKT eskumenak eskuratzeko aplikazioak eta zerbitzuak



24. Orrialde Javier Arroyo
La tiza digital eta Atrapasueños



27. Orrialde Milagros Lorenzo
IKT Haur eta Lehen Hezkuntzan

30. Orrialde Ion Rey
Ni ez naiz blogaria



Internet eta oinarritzko gaitasunen garapena





Luis Iza Dorronsoro

Prestakuntzaren eta Hezkuntzaren Berrikuntzaren Zerbitzua

Kalitatezko hezkuntza orok pertsoneri eman behar dizkie testuinguru jakin batean behar dituzten ezagutzak eta estrategiak. XXI. mende-mendean, berriz, bermatu behar ditu informazioaren eta ezagutzaren gizartearen moldatzeko ezinbestekoak diren gaitasunak.

Oraingo aldiaren ezaugarrietako bat, beste batzuen artean, eskura dugun informazioa oso ugaria eta heterogeneoa izatea da.

Informazio hori etengabe aldatzen ari da eta informazio horren euskarrietan aldaketa handiak gertatzen ari dira. Oraingo egoera definitzen duten beste ezaugarri batzuk dira, besteak beste, bizitza osoan zehar ikasteko beharra, kultura-arteko mailan hobeto aritzeko beharra, hizkuntza gehiagotan komunikatzeko beharra eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko beharra.

Testuinguru honetan, Internet ezinbesteko baliabide bilakatu da informazioa bilatzeko, komunikatzeko, aisialdirako. Internet gure bizitzetan presente dago. Aldaketa kualitatibo handia ekarri du, sareak eragin baitu eskura dugun informazioa gero eta azkarrago ugaltzea, nahiz eta informazio hori guztia ez izan garrantzitsua eta fidagarria.

Eszenatoki berri honetan, ikaskuntza iraunkorra ezinbesteko bihurtu da, eta horregatik, pertsonak bizitza osoan zehar modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea garrantzi handiko bilakatu da. Beharrezkoa da gaitasunak garatzea. Garatu beharreko gaitasun horiek lotuta egon behar dute informazioaren bilaketarekin, informazioaren ebaluazioarekin eta hautaketarekin, eta informazioaren trataerarekin eta informazioa ezagutza bihurtzearekin, beste pertsonenkin partekatua izan dadin.

Hezkuntza sistemak ahalegintzen dira erronka berri horiei erantzuten, eta horregatik helburuak zehazten dituzte eta horiek erdiesteko planak ezartzen dituzte. Hezkuntza sistemen helburuetako bat da ikasleek gara ditzatela ezagutzaren gizartearen beharrezkoak diren gaitasunak, funtsezko edo oinarritzko gaitasunak, hauen artean, informazioaren eta gaitasun digitalaren trataera.

Gure hezkuntza sistema ez dago dinamika horretatik at. Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan, hainbat ekintza egin izan dira eta egiten ari dira Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) hezkuntza praktikan sartu daitezzen. Horien artean nabarmendu daitezke: Urrutiko Prestakuntza

Programa (jarduneko irakasle guztiei zuzendua, IKTen prestakuntzari eta hauek hezkuntza lanean sartzeari dagokionez); teknologia berrien proiektuak; gainerako autonomia erkidegoekiko eta Hezkuntza Ministerioarekiko lankidetzak, eduki digital interaktiboak garatzeko AGREGA izeneko plataforma berri batetik; Lehen Hezkuntzako ikasleentzako edukien ataria; arlo guztietarako baliabide didaktikoen ataria; Integra-IKT proiektu esperimentalak. Beraz, helburua da baliabide egokiak jartzea, baliabide pertsonalak eta materialak, ikasleek gaitasun digitala ziurtatzeko.

Gaitasun digitala

Europak dio gaitasun digitala funtsezko gaitasunetako bat dela Oinarritzko Hezkuntzarako, ondoko agirian jasota geratzen

Labur bilduz, oso baliabide indartsua dugu, askotariko abantailaekin, baina arriskuak ere izan ditzakeena. Hezkuntzak eginkizun erabakigarria bete dezake abantaila eta arrisku horien artean. Gure garaiari berezko zaizkion tresnak erabil daitezela nahi badugu, arras garbi dagoena da XXI.eko eskolak ezin duela funtzionatu Internet existituko ez balitz bezala. Analfabetismo digitala prebenitzeko, beharrezkoa da nahita egindako plangintza sistematizatu bat.

Baina berritasuna ez da papezko liburua ordenagailu eramangarri txiki batekin ordezkatzea. Berritasuna da gure hezkuntza eredua berrikusteko eta egokitzeko apostu didaktikoa bat, XXI. mendeak hezkuntzari egiten dizkion eskaerei erantzuteko, kalitatean eta ekitatean oinarrituz, hots, ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak gara ditzatela ahalbidetuz. Internetek baliabide bezala lagundu dezake ikaskuntzak integratuak, aplikatuak eta bere testuinguruan kokatuak izan daitezen, gaitasunen ikusmoldeari berezko zaizkion ezaugarriak, alegia. Hauxe da Integra-IKT proiektuari eman nahi izan zaion zentzua. Beraz, tamaina handiko erronka pedagogiko baten aurrean gaude.

Aldaketa hauek eskatzen dute irakasleek prestakuntza sakona izatea. Erronka horri aurre egiteko ezinbesteko betebeharra da prestakuntza sendoa, hots, hezkuntza praktikako berrikuntzari eta prozesuen eta emaitzen ebaluazioari lotua. Ildo berean, ezin da horrelakorik egin hezkuntza komunitate osoaren, ikastetxearen, familien eta gizartearen arteko elkarlan esturik gabe.

Arriskuak egon arren, arreta jarri behar dugu Internetek dituen sekulako aukeretan, gure garaiari berezko zaion tresna baita, oso dinamikoa, baina erabilerak kritikoa, autonomia eta arduratsua eskatzen duena. Hezkuntzak oso eginkizun garrantzitsua bete ahal izango du horretan. IKTez ez diete hezkuntzaren galdera handiei erantzungo, ezin dira helburu gisa hartu, bai ordea, hezkuntzaren helburuak erdiesteko tresna gisa, ikasleek ikasteko eta ikasten ikasteko baliabide gisa. Honek eskatzen du Interneten erabilpenaren gaineko hausnarketa bat egitea. Azken batean, helburua da gaitasun digitala garatzea, egungo testuinguruak hezkuntzari eskatzen dizkion oinarritzko gaitasunen markoan.

den bezala: "Ikaskuntza iraunkorrerako funtsezko gaitasunak: Europako erreferentzia marko bat".

Hezkuntza sistemak gaitasun digitalaren garrantzia azpimarratu du azken urteotan onetsitako lege-xedapenetan. Curriculum ofizialek zehazten dute gaitasun digitala dela "trebetasunak izatea, informazioa bilatzeko, lortzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko, eta informazio hori ezagutza bilakatzeko". Eta gainera: "askotariko trebetasunak ekartzen ditu berekin: informazioaren eskuragarritasuna, hainbat euskarritan transmititzea tratatu ondoren, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia funtsezko elementutzat hartzea informatzeko, ikasteko eta komunikatzeko".

Gaitasun digitala, hain zuzen, gure garaiko teknologia eraginkortasunez erabiltzea da, eta bere potentzial guztia ateratzea, ikaskuntza bermatzeko bizitza osoan zehar. Internetek gure bizitzak aldatu ditu eta presente dago une oro jende gazteagoaren bizitzan. Naturaltasunez erabiltzen dute internet informazioa eskuratzeko, aisialdirako eta komunikatzeko. Esan daiteke funtsezko elementua dela euren garapen pertsonal eta sozialean.


Baina sarea erabili ohi izateak ez du ziurtatzen beste oinarritzko trebetasun batzuk finkatuta izatea, hala nola, autonomiari, izpiritu kritikoari, ezagutza informazio bihurtzeari eta abarri lotutako trebetasunak. Eskolak lagundu behar du alfabetizazio digitala eskuratzeko, ezinbestekoa baita egungo eta etorkizuneko ezagutzaren zati handi bat eskuratzeko, baita garapen pertsonal eta sozialerako ere. Zulo digitala saihestea (eskola inklusiboaren ikusmoldeetik) baldintza bat da Hezkuntza ekitatea erdiesteko.

Sareak sekulako aukerak eskaintzen ditu baina aldi berean arriskuak ere baditu

Ikasleen gaitasun digitala hobetzea helburua duten proiektuek baliabide materialak behar dituzte, baina, batez ere, plangintza zaindua, proiektuen jarraipena eta erdietsitako emaitzen ebaluazioa. Irakasleen prestakuntzak eginkizun erabakigarria du prozesu honetan guztian.

Baina Internetek lagundu dezake, ez soilik gaitasun digitala garatzen, baizik eta askotariko aukerak eskaintzen oinarritzko gaita-

sunak lantzeko. Informazioaren etengabeko hazkundeak ez du berez ziurtatzen ezagutza handiagorik, ezta garapen pertsonal eta sozial betegarriagorik ere. Horregatik, Europar Batasuneko Parlamentuak 2006/09/26an emandako gomendioak esaten digu oinarritzko gaitasunak sartu behar direla curriculumetan.



Oinarritzko gaitasunak

Gaitasuna izatea zera da: ezagutza bere testuinguruan eta modu integratuan aplikatzea. Gaitasunak berekin dakar ditugun baliabide pertsonalak (ezagutzak, jarrerak...) aplikatzea askotariko testuingurutan, mota askotako prozesuak aktibatuz (kognitiboak, metakognitiboak eta emozionalak), eskakizun konplexuei erantzuteko. Jakitea ere bada: egiten jakitea eta izaten jakitea, hots, askotariko testuinguruetara eraman eta doitu daitekeen jakintza, jakite integratzailea eta bizitza osoan ikas-teari lotua.

Oinarritzko irakaskuntzaren curriculumak zortzi gaitasun ezarri ditu: hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna, matematikako gaitasuna, mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, gaitasun soziala eta herritartasuna, arte eta kultur gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, autonomia eta ekimen pertsonala.

Internet modu egokian erabiltzeak eragin-kortasunez lagundu dezake aipaturiko gaitasunak garatzen, betiere kontuan hartzen badira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan inplikaturako aldagaiak. Bestalde,

ez du zentzurik batere gaitasunak garatzeak ez badira kontuan hartzen orduan orduko testuinguruko ezaugarriak, eta horregatik ez da gaitasun horien garapena ulertzen internet baliabide bezala aintzat hartu gabe, bai ikaskuntzarako, bai komunikaziorako.

Internet irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan

Internetek hezkuntzarako eskaintzen dituen aukera berriak kontuan hartzekoak dira: errazten du eskola lotuago egotea hurbileko eta urruneko ingurunearekin, informazioaren eskuragarritasuna berehalakoa da, ahalbidetzen du informazioa trukatzeko, elkarreragina errazten du, ahalbidetzen ditu ikaskuntza funtzionalagoak testuinguru errealaletan... Internetek eta Web 2.0 tresnek ahalbidetzen digute izatea ez soilik informazioaren hartzaile, baizik eta uzten digu betetzen askosaz aktiboagoa den eginkizun bat.

Baina tresna berriak sartzeak ez du berez ziurtatzen paradigma aldaketa bat hezkuntzan. Internet erabiltzeak ez du nahitaez ekarriko hobekuntzaren helburua duen hezkuntza berrikuntzarik. Kontua ez da, beraz, tresna batzuk ordezkatzeko beste batzuekin, ezta euskarri batzuk gaurkotuagoak diren beste euskarri batzuekin ere. Internet erabiltzeak balio behar du hezkuntza eredua aldatzeko, informaziora eta ezagutzara modu ezberdinean hurbiltzeko.

Interneten potentzialtasunak eraman gaitzake hezkuntza praktika ezberdinetara, non irakaslearen eta ikaslearen rola aldatuko diren. Ikasleek autonomia handiagoa izatea, testuinguruan txertatutako ikaskuntza, ikerketan oinarritutako ikaskuntza, lan kooperatiboa, metodologia aktiboak, ezagutzaren integrazioa (diziplinartekoa), izpiritu kritikoa eta hausnarketa erabiltzen duena; hauek bezalakoek gaitasunetan oinarritutako ikusmolde batera hurbiltzen gaituzte. Ez bakarrik beste teknologia bat; horrez gain, beste helburu batzuk eta beste aukera didaktiko batzuk. Tresna berriak hezkuntzan erabiltzeak berekin dakar ezagutzara modu ezberdinean hurbiltzea eta ikaskuntzarekiko aldaketa kognitibo, metakognitibo eta emozional bat.

Horrela izatea, neurri handi batean, baliabide horren erabileraren mende dago. Gaitasunek, eta gaitasun digitalak, zehazki, eskatzen dute nahita egindako plan sistematizatu bat. Saihestu behar da, hala beharrez, azalezko planteamenduen arriskua, eta batik bat, ezagutza ordezk-

tzea informazio piloarekin, edo bestela esanda, curriculumei, berrikuntza proiektuei, ebaluazioari eta irakasleen prestakuntzari lotutako ekintzak egingo dira.

Proposamen pedagogikoei jadanik jasotzen dute gaitasun digitalari lotutako lan sistematikoa, oinarritzko gaitasunen markoan. Haur Hezkuntzako 2. zikloko curriculumak hastapen esperientziak planteatzen ditu informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, komunikazioa eta errealitatearen irudikapena sustatzen dituen hizkuntzetako bat den aldetik. Lehen Hezkuntzan, helburuetako bat hau da "Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikaskuntzarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea". Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Curriculumaren helburuetako bat hau da: "Oinarritzko trebetasunak garatzea informazio iturriak erabiltzerakoan, zentzu kritikoz ezagupen berriak bereganatzeari begira. Teknologien arloan oinarritzko prestakuntza bereganatzea, informazioari eta komunikazioari buruzkoetan". Eta gainera: "Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lan intelektualeko tresna gisa erabiltzen trebea izateko beharrezkoa da beren funtzio bikoitzean erabiltzea, alegia, informazioa eta ezagutza transmititzeko eta sortzeko".

Zeharkakotasuna ere kontuan hartzen da eta azpimarratzen da arlo bakoitzak nola lagundu dezakeen oinarritzko gaitasun honen garapenean. Adibidez, Natur Zientzien kasuan, oinarritzko gaitasun horren garapean laguntzen da honela: "informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz zientzien ikaskuntzan, komunikatzeko, informazioa lortzeko, informazioa atzeraelikatzeke, egoerak simulatu eta bistaratzeko, datuak lortu eta tratatzeko eta abarretarako".

Integra-IKT bezalako berrikuntza proiektuei antzemandako beharrei erantzuten diete eta hobekuntzaren helburua duten hezkuntza praktikak berriak sartzeko ahalbidetzen dute. Interneten erabilera beti dago presente berrikuntzako ekimen hauetan.

Ebaluazioa curriculumaren osagai bat da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatza, hain zuzen. Nazioarteko erreferenteei begiratuz gero, ikus dezakegu, gaur egungo eskariei (testu elektronikoak irakurtzeko gaitasuna izatea, kasu) erantzuteko, ebaluazioek ikusmolde

berriak ekartzen dituztela. Adibidez, PISAk, 2009ko edizioan, sartu du euskarri elektronikoko testuak irakurtzearen (ERA: *Electronic Reading Assessment*) ebaluazioa. Ildo berean, planteatzen dituen erronken artean, ikasleek IKTetan dituzten gaitasunak ebaluatzea dago eta euskarri elektronikoko ebaluatzea beste arlo batzuk. Dena den, egia da, hasieran, osagarri eta aukerakoa dela herrialdeentzat, eta ondoren, pasatu ahal izango direla PISAren muinekoak izatera.


Testuinguru honek eta planteatutako erronkei eskatzen dute irakasleek prestakuntza sendoa izatea, baliabide berriak modu naturalean integratu daitezkeen lan didaktikoan, curriculumari jarraituz. IKTak ikasgelan erabiltzeak hainbat aldaketa dakar berekin, irakasle lanbideari lotutako aldagaietan. Dagoen arriskua da gauza berbera egiten jarraitzea baina beste euskarri batean; erronka, ordea, XXI. mendeko pertsonak dituzten beharrei erantzuteko IKTak erabiltzea.

Hezkuntza Departamentuaren Urrutiko Prestakuntza programa finkatu da bere baliagarritasunagatik. Azken kurtsoetan hainbat prestakuntza jardura bultzatzen ari dira arloetako eta irakasgaietako curriculumetan IKTak sartzeko eta profesionalen komunitateak "on line" sortzea ahalbidetzeko, euren artean esperientziak partekatu ditzaten. Gainera, ez da ahaztu behar Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo EIBZn ematen den prestakuntza.

Sareak sekulako aukerak eskaintzen ditu baina aldi berean arriskuak ere baditu. Arrisku batzuk ez dira gutxietsi behar: haurrak eduki desegokiak eraginpean egotea, mendekotasunak, pribatutasuna galtzea, ziber-jazarpena, jardura osasun-garriak ez egitea. Gai honek gero eta kezka handiagoa sortzen die familiei eta irakasleei, horregatik izan du oihartzuna Europako erakundeetan. Interneten erabilerara segurua bermatzea helburu bat da familientzat, eskolarentzat eta gizartearentzat.

Hezkuntzaren izaera prebentiboak aintzat hartu behar du alderdi hau. Hezkuntza komunitate osoaren ardura da dagozkion neurriak hartzea sarearen arriskuak gutxitzeko eta aukerak handitzeko. Gaitasun batzuek (adibidez: informazio garraztitsuen modu selektiboan bilatzea, informazioa eta segurtasuna baloratzeko irizpideak, pribatutasuna zaintzeko jarraibideak, gizarte sarean erabilerara zuzena), eskatzen dute ikastetxearen eta familien arteko elkarlan estua.

Zulo digitala
saihestea (eskola
inklusiboaren ikus-
moldeetik) baldintza
bat da Hezkuntza
ekitafea erdiesteko



Eduardo Larequi Garcia

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknolo-
gien Atala

Hezkuntza Departamentua

Nafarroako Gobernua

elarequi@educacion.navarra.es


BLOGAK HEZKUNTZA BALIABIDE GISA

1. Blogen arrakasta Interneten.

Sarea¹ osatzen duten webgu-
neen artean, blogak² funtsezko
zatiak dira eta gero eta garrantzi
handiagoa dute, ez soilik bere
ugaritasuna eta nonahikotasu-
nagatik, baita ere webgunē
mota horrek gero eta eragin
handiagoa duelako Interneteko
erabiltzaileen nabigatzeko eta
parte hartzeko ohituretan, eta
izaera eta irismen desberdineko
komunitate eta gizarte sareak
eraikitzeko prozesuetan duen
garrantziagatik.

Hezkuntzaren eremuari
dagokionez, blogak ere lehenta-
sunezko tokia eskuratu dute
hondarreko urteotan, elkarren
artearen zerikusia duten bi arrazoi
desberdin direla eta: edozeinen
eskura dagoen komunikabide
gisa eskaintzen dituen aukera
handiak, eta hezkuntza erakun-
deen behar eta helburuetara
egokitzeko duten ahalmena.

Hain zuzen, Sarean idaz-



keta tresna eta komunikatzeko eta argitaratzeko baliabide gisa egituraren eta konfigurazioaren ikuspuntutik, blogak ukaezinak diren abantaila sorta bat bil-tzen dute:

- Azkar sortzen ahal dira. Blogak argita-ratzeko egungo sistemekin gutxieneko ezagutzak dituen edozein erabiltzailek gune bati alta eman eta argitaratzen ahal du bost minutu baino gutxiagoan.
- Idazteko eta argitaratzeko errazta-suna. Espezialistak bat omen datoz esaterakoan blogak webgune mota eraginkorrena direla, hau da, bertan egindako lanaren eta lortutako emai-tzen arteko harreman hoberena eskain-tzen dutela. Testu prozesadore batean idazten eta Interneten nabigatzen da-kien edozeinek blog bat argitaratzen ahal du ahalegin txiki batekin.
- Eduki mota oro integratzeko aukera, testuala eta ez testuala. Blogetako pla-taforma eta aplikazio gehienak bereziki egokiak dira multimendia edukiak txe-rtatzeke: irudiak, audio, bideo, aurkezpe-nak eta diaporamak, mapak, testu oina-rria duten dokumentuak (PDFak) eta 2.0³ webgunearen eduki eta nahasketa

mota oro. Izan ere, objektuak sortzeko industria bat dago eta dagokion kode zatiak koplatu eta itsatsi bezalako ope-razio errazekin blog batean txertatzen ahal dira objektu horiek.

- Informazio antolatzeke erraztasun eta potentzia handia. Blogak kudeatzeko aplikazio eta plataforma gehienek ahal-bidetzen dute edukia modu askotan eskuratzea, elkarrekiko eskusiboak edo ez izaten ahal direnak, ondokoen ara-bera: atalak edo kategoria tematikoak, etiketa semantikoak, datak, egileak, irakurleek egindako balorazioa edo ira-kurketa, edukiaren bestelako elemen-tuarekin izandako harremanak, etab.
- Egileen eta irakurleen arteko elkarre-kintza, eta azkeneko hauen artekoa, iruzkinen mekanismoaren bidez. Bloga-ren bestelako ohiko mekanismoek iris-men handiagoko elkarrekintza bat la-guntzen dute, ahalbidetzen baitute ezar-tzea erabiltzaileen komunitateak eta interes komuneko sareak; ondoko me-kanismoen bidez hain zuzen: lotura iraunkorrak edo *permalink*-ak, berreda-pena ("sindikazioa" ere deitzen dena), RSS bide edo iturriak, loturen zerrenda edo *blogrol*-al, *retroloturak* edo *track*-

back-ak eta *pingback*-ak bezalako inter-konexio gailuak⁴.

- Ikuste handia Sarean, batez ere Inter-neten argitaratzeko modu tradizionale-kin alderatuta. Aipatu berri ditugun ezaugarri tekniko batzuk direla eta, blogak bilatzaile ezagunenak azkarta-sun eta zehaztasun handiz indexatzen dituzte (bilatzaileen artean Google na-barmendu behar da).
- Aplikazio eta plataforma ugari, gehie-nak doakoak. Hori dela eta, argitara-tzeko sistema horiek edozein herritarren esku jartzen ditu.
- Interneten eta sare lokaletan lan egi-teko aukera, aukera hori bereziki egokia da arrazoi batzuk direla eta, erabiltzai-leen lanak publikoki ikusgai jarri nahi ez badira.

2. Blogak hezkuntzaren eremuan.

Ez dirudi beharrezkoa arestian ai-patu ditugun ezaugarrietatik eratoritzen diren abantailak goraiatzeko, baina bai ordea komeni da hausnartzea hezkuntza jarduerarako interes handiko baliabide bihurtzen duten ezaugarrien gainean⁵:



- Interneten praktikan jartzen diren Web 2.0 izenekoaren baliabideak, zerbitzuak eta aplikazioek alfabetizazio digitalaren prozesuak eta gako diren trebetasun batzuk eskuratzen laguntzen dute: gaitasuna hizkuntza komunikazioan, gaitasun sozial eta herritarra, ikasten ikasteko gaitasuna eta, noski, gaitasun digitala eta informazioa tratatzeko gaitasuna.

- Komunikazio egoera erreal bat ezartzen dute, izaera publikokoa gehienetan (testu-prozesadoreak bezalako TIC tresna batzuekin gertatzen ez den bezala, blogetan ikasleek beraingandik eta irakasleengandik desberdin diren beste hartzaile batzuek idazten dute). Honek ekoizpen testualen gaineko jokaera zuhurra sustatzen du eta jarduera didaktikoetarako aparteko motibazioa dakar.

- Ikasleek egoera komunikatiboaren gaineko kontzientzia argi bat bereganatzen laguntzen dute, blog batean idazteak eskatzen baitu ondokoak kontuan hartzea: mezuak igortzeko eta hartzeko baldintzak, hartzailearen ezaugarriak eta espektatibak eta, idazteko eta argitaratzeko orduan beharrezkoak diren tonua eta jokaera.

- Ahalbidetzen dute trebatzea komunikazio modu eta testu genero anitzetan, baita mota eta helburu desberdinetako testuak egiten ere, egoera komunikatibo eta helburu desberdinetarako: azaldu, eztabaidatu, kontatu, partekatu, konbentzitu, lagundu, etab. Bestalde, ez dute soilik errazten ohitura akademikoetako eta eskola bizitzako testuen baliabideen eta moten praktika, baita ere lanean, aisialdian eta eguneroko esperientzietan Internetek finkatzea ekarri duen baliabide berriena, komunikazio eskenatoki-ena eta testu generoena: blogosfera, gizarte sareak, *microblogging*-a, ikaste

ingurune pertsonalizatuak, etab.

- Ikasleen protagonismoa lagundu eta ikasgelaren eta irakaskuntza presentzialaren esparruaren mugak gainditzeko dituen horien eta irakasleen arteko elkarrekintza mota bat ahalbidetzen dute. Gainera, blogetako elkarrekintza eta erreferentzia mekanismoek ahalbidetzen dute ikasgelaren

edo ikastetxearen esparruan eta hortik kanpora garatzen ahal diren harremanak sortzea.

- Plantilla aurredefinituen eta oso intuitibo diren argitaratzeko sistemen erabilerrari esker, blogak ahalbidetzen dute erabiltzaileak argitaratzearen zailtasun teknikoari arreta gutxi eskaintzea eta beren ahailekin jartzea edukiaren prestaketa eta banaketan.

- Mekanismo batzuen bidez (artikuluak eta iruzkinak argitaratzeko alde aurreko baimena, erabiltzaileen rol batzuetara lotutako funtzio desberdinak), blogak ahalbidetzen dute irakasleak beren ikasleen ekoizpena egiaztatzea eta beren argitaratzea baimentzea horiek kontrolatzeko baldintzetan, ez soilik zuzentasun ortografikoaren eta gramatikaren ikuspuntutik, baita ere testuen egokitasun pragmatikoaren ikuspuntutik.

- Ikasleek jokabide eta balio positibo zenbait bereganatzea laguntzen dute: nortasunaren eta ahots pertsonalaren eta sozialaren autoafirmazioa, lagun hurkoaren ikuspuntua errespetatzea, norberaren posizioak egokitzea talde lanaren eskakizunei, Interneteko informazioaren aprobetxamendua eta erabileren egokia eta ezagutza hedatzearen eta birbanatzearen garrantzia.

- Erabiltzaile desberdinen arteko lankidetzarako aukera handiak eskaintzen dituzte (ikasleen gida eginkizunetan dabilen irakaslea, irakasleak elkarren artean, ikasgela edo talde bereko ikasle talde zenbait, talde desberdinetakoak, ikastetxe desberdinetakoak), proiektuaren edo jardueraren izaerarekin bat antolatzen edo hierarkizatzen ahal direnak.

- Edukia antolatu, integratu eta aurkezteko beren sistema ugariari esker, blogak

argitaratzeko plataforma bereziki egokia osatzen dute eduki eta jardura mota desberdinak biltzen dituzten proiektuetarako, bereziki material multimediak eta Sarean eskuragarri dauden bestelako baliabideak integratzea eskatzen duten egoeretarako.

- Curriculum-eduki zenbait garatzeko aukera handiak eskaintzen ditu, adibidez, idazketa egoera zehatzetan eta helburu desberdinetarako, testu mota anitzeko praktika eta analisia, hedabideen prestaketa eta analisia, etab. Arlo eta materia guztietarako blogak sortzen ahal diren arren, batez ere testuala den bere izaerak hizkuntzen arloetan eta irakurketa eta ahozko eta idatzizko adierazpenean erabiltzea laguntzen du.

Azaldu berri ditugun ezaugarrietatik abiatuta erraz ulertuko da hezkuntzarako blogen arrakasta: hezkuntzako ia edozein erabileratara moldatzen ahal dira eta jardura didaktiko mota ugari garatzea ahalbidetzen dute⁶. Dena dela, kontuan izan behar da webgune mota hauen egitura kronologikoa eta sekuntzuala oztopo bihurtzen ahal dela proiektu batzuetan. Eragozpen hori saihesteko teknikak egon arren (adibidez, informazioa jartzea orrialde estatikoen bidez, edo edukia sailkatzea deskribatzaile semantikoen bidez, modu honetan sarrerak ez direlako kronologikoki sailkatzen, kategoria eta etiketen arabera baizik), beharrezkoa da ohararaztea blogak eraginkortasun handiena hartzen duela ondokoak argitaratzen direnean: "eduki sekuentzialak, berehalakoak eta eduki indibidual motekin"⁷. Bestalde, nahiz eta aplikazio eta plataforma batzuek ahalbidetzen duten elkarlaneko sarrerak neurri batean berrikustea, blogak ez dira planteamendu honetarako baliabide egokiak, horiek garatzeko askoz egokiago baita wiki-a⁸.

Oso konplexua den errealitate bat sinple bihurtzeko arriskua egon arren⁹, komeni da desberdintzea, blog hezitzaileen edo *edublog*en artean, bi argitalpen mota desberdin: irakaskuntza blogak, beren hezkuntza esperientzia partekatu eta honen gainean publikoki hausnartzen duten irakasleek sortuak, eta ikasgela blogak, ikasleen jardura didaktikoen tresna eta eskenatoki. Praktikan, ez da erraza batzuen eta besteen arteko muga ezartzea, sarritan irakaskuntza blogetan ikasleen lanak argitaratzen direlako eta ikasgela blogetan aurkitzen ahal direlako irakasleen esku-hartzeak, baliabide didaktikoak, etab. Hurrengo epigrafean bi hezkuntza blog mota horien adibide zehatz batzuk ikusiko ditugu.

3. Hezkuntza administrazioak eta hezkuntza blogak. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Proiektuaren kasua.

Azken urteetan blogak sortzeko eta ostatu emateko zerbitzuak ugartu egin dira, eta hezkuntza administrazioek zerikusi handia izan dute honekin¹⁰. Erakunde zerbitzu horiek ez dituzte soilik irakasleen esku jartzen aurreko epigrafeetan aipatu diren aukera didaktikoak; gainera, hezkuntza erakundeetarako bestelako abantailak ere eskaintzen dituzte: atari korporatiboetan integratzea, kautotze zentralizatua, irakasleen arteko gizarte sareak eta ikasketa komunitateak sortzea eta garatzea, erakundeen ekimenak eta proiektuak zabaltzeko ahalmena, ikastetxeen jarduerak, prestakuntza programak eta aldaketa prozesuak, sare korporatiboan eta horien banda zabalaren aprobetxamendua etab.

Nafarroako Foru Komunitatean, Hezkuntza Departamentuko Teknologia Berriak eta Hezkuntza Proiektuak (hemendik aurrera TBHP)¹¹, dagoeneko urte batzuk darama ikastetxe eta irakasleei blogen eremuko zerbitzuak eskaintzen, besteak beste:

- Irakasleendako blog plataforma, WordPress MUren gainean, *Multiblog*¹² izenburuarekin. Zerbitzu honek ahalbidetzen du irakasle bakoitzak bere bloga osatzea, bai erabiltzaile bakarrarekin, bai erabiltzaile desberdinekin. Plataforma honetan sortutako bitakoretan ikasleek ezin dute zuzenean parte hartu eduki sortzaile gisa, baina bai iruzkin egile gisa.

- Ikastetxeendako webgune dinamikoen zerbitzua, bertan helburu desberdinak dituzten aplikazioak instalatzen ahal dira, eta horien artean blogak sortzeko sistemak, besteak beste: WordPress, WordPress MU, b2evolution, etab. Ikastetxe bakoitzak bere webgune dinamikoan blog bat edo gehiago sortzen ahal ditu eta bere kasa administratu; honek ahalbidetzen du ikasleak eta irakasleak elkarrekin esku hartzen ahal duten blogak sortzea¹³.

- Prestakuntza ikastaroak. Une honetan TBHPren online prestakuntza programak "Web 2.0: hezkuntza aplikazioak" izeneko ikastaroa eskaintzen du, bere curriculum irakaskuntza blogak sortu eta kudeatzearekin zerikusia duten zenbait alderdi hartzen ditu bere baitan. Era berean, TBHPren Moodle-n alegiazko ikasgelan autopreskuntza ikastaro bat bada, eta bertan irakasleei erakusten zaie Multiblog plataforman sortutako bitakora bat kudeatzeko¹⁴.

Ekimen hauen ondorio gisa gero eta gehiago dira TBHPren zerbitzarietan blogak sortu dituzten irakasleak eta ikastetxeak, planteamendu eta helburu desberdinekin. Horien artean ondokoak aipatu behar dira:

- *Aldizkaria on-line*. Iruñeko "Iturrama" DBHren instalazio multiblogak, arlo eta departamentu didaktiko batzuen blogak biltzen ditu, baita bestelako hezkuntza esperientziak ere, euskaraz gehienak. Sortutako blog kopurua eta horien edukia-aren aberastasuna eta aniztasuna dela eta, hezkuntza blog komunitate baten potentzialtasunaren adibide interesgarria da: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/iturrpro/al>

[dizkaria/](#).

- *Enseñanzas musicales integradas*. Iruñeko "Vázquez de Mella" HLHIParen bloga, ikastetxe honen ataria da. Ezaugarri nabarmenena du musika bertako ikasleen prestakuntzaren zati integrala dela: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/cpvazquezdemella/>.

- *Historia del mundo contemporáneo*. Manuel Ibáñez irakaslearen bitakora, helburu du Batxilergoko 1. kurtsoa Historia ikasgaiari jarraibideak ematea. Blog honen ezaugarriak dira bere atari egitura, orrialde finko batetik konfiguraturia (hau da, blog baten egitura kronologikorik gabea, hemen egitura atal espezifiko bati esleitzen zaio), eta eduki multimedia aberatsa:

<http://irati.pnte.cfnavarra.es/multiblog/mibanezn/>.

- *Ibaialde's corner*. Ingelesaren irakaskuntzarako Javier Baile irakaslearen blog elebiduna, artikulua ingelesez eta gaztelaniaz. Bereziki interesgarria da planteatzeko elementu multimedia bidezko jardura didaktikoen aniztasunagatik: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/multiblog/jbaileto/>.

- *Kamishibai*. Izen bereko hezkuntza proiektuaren bloga, irakasle talde batek sortua, gehienak Iruñeko "San Juan de la Cadena" HLHIPko kideak. *Kamishiba*-aren inguruan sostutako proiektua da ("paperezko antzerkia" esan nahi duen japonierazko hitza), narratiba haur txikiei hurbiltzeko baliabide gisa ulertua: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/kamishibai/>.


- TBHPren zerbitzuen migrazioa. Izaera informatiboko blog instituzionala, irakasle eta ikastetxeei zuzendua, bere xedea da TBHPren erabiltzaileen komunitateak ezaugarria erakunde honek ematen dituen zerbitzuak zein neurritan jasoko duen zerbitzarien parkearen eguneratzearen eragina:


<http://irati.pnte.cfnavarra.es/multiblog/migracionpnte/>.

- *San Pedro ikastetxearen aldizkaria, Mutiloa*. Ikastetxe horren instalazio multibloga, instalazio digital gisa antolatua, atal desberdinak hezkuntza zikloen, arlo espezifikoaren, eta abarren banakako blogiei dagozkie:

<http://irati.pnte.cfnavarra.es/cpsadrla/vozmenuda/blogs/>.

- *El Rincón de Herodes*. Irakaskuntza bloga, instrukzio edukikoa. Bertan Jesús Rodríguez Hernández irakasleak ikasleen jardura didaktikoak zuzendu eta lanak, ariketak, etab. proposatzen ditu. Irakasle eta irakasleen arteko elkarrekintzaren





adibidibe interesgarriak eskaintzen ditu iruzkinen mekanismoa erabilita: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/multiblog/jrodrig3/>.

Bibliografía

Artikulu eta bibliografía honetan aipatzen diren URL guztiak jardunean ziren 2009ko irailaren 29an.

Alonso Arrukero, Néstor (2009), "Blogs en la escuela. Una introducción al uso didáctico de las bitácoras en Primaria", Lara, Tíscar, Zayas, Felipe, Alonso Arrukero, Néstor eta Larequi, Eduardo, *La competencia digital en el área de Lengua*, Bartzelona, Octaedro, 69-95 orrialdeak.

Balagué, Francesc eta Zayas, Felipe (2007), *Usos educativos dels blogs. Recursos, orientacions i experiències per a docents*, Bartzelona, UOC argitaletxea.

De Haro (2007a), "¿Edublogs, ¿un medio poco apropiado?", *Educativa*, 2007-4-26, <http://jidehara.blogspot.com/2007/04/edublogs-un-medio-poco-apropiado.html>.

— (2007b), "Tipos de edublogs", *Educativa*, 2007-8-3, <http://jidehara.blogspot.com/2007/08/tipos-de-edublog.html>.

— (2007c), "El uso del blog en la clase presencial", *Educativa*, 2007-11-24, <http://jidehara.blogspot.com/2007/11/el-uso-del-blog-en-la-clase-presencial.html>.

— (2008), "La elección entre el blog y el wiki", *Educativa*, 2008-3-25, <http://jidehara.blogspot.com/2008/03/la-elección-entre-el-blog-o-el-wiki.html>.

Fumero, Antonio eta Roca, Genís (2007), *Web 2.0*, Madril, Fundación Orange España, http://www.fundacionorange.es/areas/25_publicaciones/WEB_DEF_COMPLETO.pdf.

Larequi, Eduardo (2009), "Propuestas para la integración curricular de las TIC en el área de Lengua", Lara, Tíscar, Zayas, Felipe, Alonso Arrukero, Néstor eta Larequi, Eduardo, *La competencia digital en el área de Lengua*, Bartzelona, Octaedro, 97-173 orrialdeak.

Orihuela, José Luis (2006), *La revolución de los blogs. Cuando las bitácoras se convirtieron en el medio de comunicación de la gente*, Madril, La Esfera de los Libros.

Rojas, Octavio I. (eta beste) (2005), *Blogs. La conversación en Internet que está revolucionando medios, empresas y ciudadanos*, Madril, ESIC.

Rojas, Octavio I. (koord.) (2007), *Web 2.0. Manual [no oficial] de uso*, Madril, ESIC.

Zayas, Felipe (2008), "El lugar de los blogs en las áreas de lenguas", Rodríguez Gonzalo, Carmen, *La lengua escrita y los proyectos de trabajo. Propuestas para el aula*, Valentzia, Perifèric Edicions/Univesitat de València, 151-167 orrialdeak.

— (2009), "Escribir y leer en la Red: nuevas prácticas discursivas", Lara, Tíscar, Zayas, Felipe, Alonso Arrukero, Néstor eta Larequi, Eduardo, *La competencia digital en el área de Lengua*, Bartzelona, Ediciones Octaedro, 2009, 39-68 orrialdeak.

1 2008ko uztaillean Google-k zioen mila milioi lotura baino gehiago jarraitu eta indexatu dituela, <http://googleblog.blogspot.com/2008/07/we-knew-web-was-big.html>. Bestalde, blogosferaren egoerari buruzko Technorati-ren azkeneko analisiak, 2008ko irailean argitaratua, adierazi du zerbitzu honek 2002tik aurrera 133 milioiren bat blog zenbatu dituela, <http://technorati.com/blogging/state-of-the-blogsphere/> (2009ko txostena urriaren hasierarako aurreikusia dago). Azkenik, Espainiako blogosferaren egoerari buruzko analisiak, Bitácoras.com-ek egin, zerbitzu horrek indexatutako 320.000 blog inguru baino gutxiago adierazten ditu, <http://bitacoras.com/informe/09>.

2 Lan honetan jakintzat emanen dugu irakurleek ezagutzen dutela, azaletik bada ere, zer den blog bat (weblog edo bitakora ere deitua) eta zeintzuk diren bere elementu egiturazaila bereizleak. Blogen ezaugarri definitorioei eta komunikabide gisa duten garrantziaz informazio gehiago izateko ondokoak kontsultatzen ahal dira: Rojas (2005) eta Orihuela (2006).

3 2.0 webgunearen ezaugarri nabarmenena da Interneteko erabiltzaileen parte hartzea edukien sortzaile eta gizarte komunikazioaren agente aktibo gisa. Aipatu webgunea geroz eta

ohartzun mediatiko handiagoa duen fenomeno bilakatu da eta bibliografía zabala sortu du. Honen inguruan ondokoak kontsultatzen ahal dira: Fumero eta Roca (2007) eta Rojas (2007).

4 Blogeri buruzko *permalink*, berredapena, *blogroll* eta *trackback* hitzen esanahia ezagutzeko blogeri buruzko Wikipediako artikulua ikusten ahal da, <http://es.wikipedia.org/wiki/Blog>. 5 Ondano aipatzen diren alderdietako batzuen inguruqan idatzi dute Balagué eta Zayas (2007) eta Zayas (2008 eta 2009).

6 Alonso Arrukero (2009) eta Larequi (2009) proposatutako jarduerak ikusi, bereziki azken honen lanaren 5.10 epigrafean aipatzen direnak, "Los blogs como herramientas de escritura", 138-144 orrialdeak.

7 De Haro (2007c). Edukiak argitaratzeko beste sistema batzuekin alderatuta blog-n erabileraren egokitasunari dagokionez, ikus De Haro (2007 eta 2008).

8 Wikipediaren definizioaren arabera, "Wiki bat, web nabigatzailea erabiliz, boluntario askok bere web orriak editatzen ahal dituzten webgune bat da. Erabiltzaileek partekatzen duten testu bat sortu, aldatu edo ezabatzen ahal dute", <http://es.wikipedia.org/wiki/Wiki>. Definizioak Wikipedia sortu eta mantentzeko sistemari aipu egiten arren (hemendik "boluntario" hitza

erabiltzea), guztiz egokia abere burua "wiki" gisa definitzen duten webgune gehienetarako.

9 Hezkuntza blogen edo edublog-ein sailkapenari buruz, ikui De Haro (2007b).

10 Adibidez, Educatur Blog Asturiasen, <http://blog.educatur.es/> edo XTEC Blocs Katalunian, <http://bloccs.xtec.cat/>.

11 TBHPari buruz, ikus <http://pnte.educacion.navarra.es/portal/>.

12 Ikus <http://centros.educacion.navarra.es/multiblog>. Zerbitzu honen balditzak kontsultatzeko http://irati.pnte.cfnavarra.es/multiblog/files/2008/12/condiciones_plataforma_blogs_pnte.pdf.

13 Ikus <http://pnte.educacion.navarra.es/portal/Servicios+a+usuarios/Alojamiento+de+sitios+web>.

14 Ikus <http://pnte.educacion.navarra.es/portal/Formacion+en+TIC/Cursos+online> (TBHPren on-line prestakuntza programa) eta <http://irati.pnte.cfnavarra.es/aulavirtual/courses/view.php?id=71> (alegiakzko ikasgela Moodle-n).

La Consejería de Educación y Ciencia de Castilla-La Mancha facilita los recursos para la instalación del gestor de contenidos Joomla! como Portal Web de Centro. En estas páginas encontrará toda la información para su instalación, configuración y administración.

[Comunidad de Usuarios](#)
[Soporte Técnico](#)
[Alojamiento Web](#)
[Videotutoriales 1.5.x](#)



Información sobre alojamiento Web en el Portal de Educación




FAQ
Preguntas Frecuentes



Ranking
Sitios web con Joomla



Directorio de Webs
de Centros Educativos



Soporte Técnico

Menú Principal

[Inicio](#)
[Comunidad de Usuarios \(Foro\)](#)
[Noticias](#)
[Contacto](#)
[Buscar](#)

La Web de tu Centro en Joomla!
Pasos para solicitar alojamiento Web

Inicio



Cómo insertar un texto para acceder a la dirección correcta de nuestra Web

Diseño y Contenidos Web

DESCARGAR

buscar...

DESCARGA JOOMLA
Última versión 1.5.14

Ver más tutoriales Joomla!

* Sólo se permite el registro de
Docentes y Centros Educativos de

Eduki-kudeatzaile gisa Joomla erabiltzen duten ikastetxeek euskarria emateko Web Ataria.

Ikastetxeen web atariak Gaztela-Mantxan hezkuntza komunitate digitalaren elkarlanean gisa egin da. Gune dinamikoko horretan, 2.0 zerbitzuak ikastetxearen informazioa eta edukien argitaratzaileak horien artean ikasleak biltzen dira. 100dik gora ikastetxeek web orriak Joomla edukien kudeatzeko sistema erabiltzea eskatu dute, eta Hezkuntza eta Zientzia Kontseilariak horren inguruko informazioa eta euskarria ematen du.

JESUS FERNANDEZ-CID ROMAN

Hezkuntzako Atariko Zerbitzuburua, Gaztela-Mantxako Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza.

JUAN LUIS ALONSO OLIVA

Hezkuntzako Atariko Webmastera, Ikastetxeen Web orrien Administratzailea, Gaztela-Mantxako Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza.

komunitate sozialak sortu arte.

Lehenengo saiakerak: web orrialdeak HTML lengoaian

Duela hamaika urte, ikastetxeetako irakasleak

nahiko konplexuak ziren web orrialdeen garapenean bideari ekiten hasi ziren, guztioi dagoeneko ohikoak ziren "non gaude", "nortzuk gara" edo "zer egiten dugu" bezalakoak erakutsiko zizkigutenak.

Web orrialde horiek orain "xumetzat" hartzen ditugu. Eskuz egindakoak ziren, HTML lengoai¹ baliatuz, eta sortzen ari zen eremu berri hiperestekatuan ezagutza gu-

txirekin, baina ordenagailuaren pantailaren bitartez mundu osoari ikastetxean egiten ari zena erakusteko ilusio handiarekin.

Ikastetxe horiek sarean egoteak ematen zuen berdintasunak (txikienak BHI handienak baino webgune zabalagoa eduki zezakeen) ehunka irakasle animatu zituen eguneraketa eta ikasketa-lan bizia eskatzen zuten webgune konplexuak egitera. Lan hori gutxi hartu da aintzat (aukera aprobetxatuko dugu aldarrikatzeko), eta irakasleek beren ohiko zereginetatik kanpo prestakuntza emandakoak emanez egin da. Horrez gain, lan horrek urte askoan ikastetxe horiek web orrian egotea ahalbidetu du.

Lan hori ez zegoen arazoetatik libre:

- Beharrezkoa zen ikastetxean programa-

Gaztela-Mantxako Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritzak bertako ikastetxe guztietarako norbere identitate digitala sortzea sustatu du, kide guztiak kokaturik dauden eta horiei komunikazio-mekanismoak ematen dizkien komunitateak parte hartzea laguntzen duena. Urte hauetan zehar, ikastetxeak beren oinarritzako datuak aurkeztetik haratago joan daitezela lortu da, benetako

ziorako lengoaia eta webgunean erabilgaitako orrialde-egitura ezagutuko zuen irakasle "aditu" bat egotea.

- Komunitatearen gainerakoak argitaratu nahi izanez gero, "aditua" libre egon behar zen eta emandako informazioa "igo" behar zuen.
- Irakasle "adituak" ikastetxetik alde eginez gero, webgunea baztertuta eta eguneratu gabe geratu ohi zen.

"Eduki-kudeatzailea" bilatzen

Denborarekin, webgunean egoteko beharrrak aldatu egin dira. Multimediaren, "webgune sozialaren", "software librearen" eta ezagutza ahal den era guztietan partekatzearen aroan gaude. E-learning-a, Wiki-a, bloga, mikroblogak, rss, bideo kanalak... ikastetxeetara tornado bat bezala sartu diren terminoak dira, askotan ikasleek beren etxetatik, kaletik, ekartzen duten aurrerapenera hurbiltzeko era bilatzen duten irakasleek berek bultzatuta. Ikastetxearen webgunea garai aldakor hauetara egokitu behar da, eta hala eskatu zioten hainbat irakasleek duela lau urte Hezkuntza Kontseilariatzari. HTML lengoaia eta "estatiko" izeneko orrialdeak oso labur geratzen ziren ikastetxeen beharrianetarako. HTML lengoaiaren egindako "web orrialdeek" beharrezko zuten autokudeatutako "zerbitzu-atari" bihurtzea.

Hezkuntza eta Zientzia Kontseilariatzak Hezkuntzako Atariaren bitartez informazio guztia erakutsi eta hezkuntza-komunitatearekin elkarrekintzan jardutearekin batera, hala eskatzen duten eskualdeko ikastetxe guztien web ostalua kudeatzeko arduraduna da; eta aipaturikoa guztiz borondatezkoa da beraientzat. Ikastetxe publikoek eta itundutako pribatuak beren webguneak "erakundeetako zerbitzari" deritzon sartzu zituzten. Eta ikastetxe horiek izan ziren webgunearen informazioa modu erakargarri eta dinami-

koagoan erakusteko alternatibak bilatzea eta webgunea eguneratzeko errazagoa izatea -PHP, XHTML bezalako lengoaietan ezagutza tekniko zabalak eduki gabe bultzatu zutenak.

Hezkuntza eta Zientzia Kontseilariatzak une hartan erabilgarri zeuden webgune-rako edukiak kudeatzeko sistemak² identifikatu eta alderatzeko prozedura hasi zuen. Zenbait egilek emandako txantiloietan eta webgunean erabilgarri zegoen informazioan oinarritutako azterketaren ondoren, "Joomla"³ honela definitu zen: kudeatzeko sistema erraz samar, malgu eta ikastetxeek proposaturiko beharrianetara egokiturikoa. Honela laburbil litezke:

- Kode irekiko software librean oinarrituak.
- Itxura profesionala eta txantiloien erabileran oinarritua. Diseinua eta edukien banaketa.
- Edukien eguneratze erraz eta malgua, programazioan ezagutarik eduki gabe, testu-tratamenduko programa baten antzeko editorearen erabileran oinarritua.
- Erabiltzaile-profilen kudeaketa maila errazean, komunitatea eduki mugatuetara sar dadin eta hainbat edito-argitaratzaile egon daitezten.
- Luzapen osagarrien katalogo zabala: argazki-galeriak, foro-sistemak, agiri-erakundeak, etab.
- Ikasketa-kurba txikiak izan zedila, baita web teknologiek ere beharrezkoak diren pertsonentzako ere.

Baldintza horietako gehienak aztertutako eduki-kudeatzaile guztietan zeuden; baina Joomla-k, gainera, komunitate zabal bat ematen zuen, proiektuak etorkizunerako itxura zuela adierazten zuena, eta

eguneraketa ugari, hirugarrenek garaturiko hainbat luzapen osagarri eta segurtasun-adabakia ekarriko zituen.

Joomla abiaraziz

Hainbat tamainako ikastetxeek egindako zenbait frogaren ondoren, Joomla, Kontseilariatzatik emandako gomendioetan oinarrituz, eduki-kudeatzaile gisa hedatuz joan zen. Hasiera batean, instalatu eta konfiguratzeko argibideak bakarrik eman ziren. Ikastetxeek informazio gehiago, eta batez ere euskarri tekniko eskatu zituzten.


Irakasleek Zentroek sistemak ematen zituen aukera interesgarriak errepertatu eta berehala berriro ziztut beren webguneak. Gehienak gure zerbitzarian sartu ziren, eta sistema horretan oinarritutako irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak eskaintzen hasi ziren. Interes hori piztu zenetik aurrera, ikastetxeetan lan-taldeak antolatu ziren, eta erabiltzaileek berek eskualde osoan irakasleek Zentroetan bertaratze bidezko ikastaroak egin zitela eskatu zuten. Egun, Hezkuntza eta Zientzia Kontseilariatzako urrutiko prestakuntza-plataformaren baitan, "Prestakuntzarako Sareak" izenekoan, tutoretza-bideoen bitartez Joomla-ri buruzko ikastaroa dago. Ikastaro horrek, deituriko bi edizioetan, ia 600 irakasle trebatu ditu eduki-kudeatzaile horren erabileran.

Horri "aurkikuntza eta prestakuntzako" fase dei geniezaiok sistema maneiatzeari dagokionez.

Sistema ezagutarazi ondoren, lehengo HTML guneak eguneratu edo webgune berriak sortzeko egun bakoitzean 2-3 eskari egon ziren batzuetan; izan ere, berriz diogu, webgunea sortu eta instalatzea borondatezkoa dela zentro guztientzat. Gero eta irakasle gehiago trebatu ziren "Joomla"ren erabileran; BHI handietako informatikako espezialistak ez ezik, baita landa-eskola, ikastetxe eta abarretako irakasleak ere. Eta dagoeneko beren ikastetxeetan trebatuta zeuden irakasle horiek berek edukiak argitaratzeko tresna maila errazean maneiatzen irakatsi zuten, gela eta irakasle bakoitzak (eta baita ikasle bakoitzak ere) ikastetxearen webgunean argitaratu ahal izateko.

Une horretan sortu zen ikastetxeen webgune bezala Joomla erabiltzen duten ikastetxeei euskarria emateko webgunea, <http://edu.iccm.es/joomla15> URLean.

Egun, honakoak ditugu: 30 **tutoretza-bideo** (eduki-kudeatzailea maneiatzen irakasteko modu berritzailea dena), **gidali-**



 **Joomla!**
Content Management System

buruak, "maiz egiten diren galderak", irakasleen beren ekarpenak (dena irekian, webgunean erregistratu gabe), erabiltzaile-komunitatearentzat itxitako foro bat eta euskarri teknikoko sistema zabal bat (erregistraturiko ikastetxe eta irakasleentzat soilik). Erregistraturiko erabiltzaileei euskarria emateko sistema horrek "tiketen" sistemaren bitartez arazoari erantzuna ematea ziurtatu eta Kontseilaritzari eduki-kudeatzailearekin gorabeherak dituzten erabiltzaile eta ikastetxeen kontrol zorrotza eramateko aukera ematen dio. Posta elektronikoko **banaketa zerrendak** ikastetxeei eta eguneraketak egiteko atariaren administrariari eduki-kudeatzailearen eta beste berri batzuen berri ematen die.


Azkenik, gure webgunean dagoen Joomla darabilten ikastetxeen **direktorioak** sistema "etekin osoz" erabiltzen ari diren, informazioa RSS bidez partekatzen ari diren eta GoogleMaps-en **geokokatuta** dauden atarietako batzuk erakusten ditu.

Ikastetxeen web atariaren onurak hezkuntza aldetik

Eraginik izan al du hezkuntza-komunitatean ikastetxeen web atari horiek sortzeak? Ez dago zalantzarik argitaratzeko sistema aurreratu eta profesionala (eta aldi berean erraza) egoteak horiek gehiago eguneratzea, eta ondorioz ikastetxearen webgunera bisita gehiago egotea, ekarri duela, argitaratzeko lehengo sistemek eragiten zuten informazio-bazterketa eta -galera saihestuz. Orain nahi dugun informazioa guztiontzat ikusgai jarri eta eskaturiko elkarrekintza eduki dezakegu, bereziki komunitate osoak parte har dezan sustatuz.

Azken hilabeteotan, webgune horietarako sarreretan hazkunde garrantzitsua gertatu dela ikusi dugu, ziurrenik Gaztela-Mantxako irakasle guztiei ordenagailuak ematearekin eta eskualdeko administrazioak ikastetxeetan IKT ekipamenduan egindako inbertsioarekin loturik egongo dena.


Irakasleen eta ikasleen blogak integraztearen inguruko esperientziak ditugu, ikastetxeek emandako tresna "fisikoak" (*hardware*) erabiltzearen ingurukoak: informatika-gelak, NetBook-ak, Arbel Digital Interaktiboak, proiektagailuak, etab. Eta Kontseilaritzak joan den ikasturtean eskualde osoan ikastetxe publikoetako irakasleen artean 28.500 eramangarri baino gehiago banatu zituenetik, Interneten, eta oro har ikastetxeen webgunean, hazkunde nabarmena antze-



Ikastetxeen zenbait webgune, Joomlaarekin sorturikoa.

man dugu.

Orain irakasleak dira webguneko "argitaratzaileak", "edukien sortzaileak", apunteak, azterketak eta webquest-ak argitaratzen dituztenak edo beren irakasgairako informazio egokia aztertu eta argitaratzen dutenak. Irakasleak dira curriculumak sartzen dutenak webgunean eta beren ikastetxearen atariko erabiltzaile gisa gero eta informazio gehiago ematen dutenak.



Laburbilduz, ikastetxeetan eduki-kudeatzailea pixkanaka ezarri izanak gure komunitatearentzat honakoa ekarri duela esan liteke:

- Ikastetxeen web atarietan komunitatearen presentzia, eduki mailako eguneraketa eta parte hartze handiagoa.
- HTML lengoaia erabiliz zaharkituta geratu diren webgune askoren eguneratzea eta lehen zeukan konplexutasuna dela-eta webgunea edukitzea planteatu ere egiten ez zuten beste ikastetxe askoren interesa.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeen eta

helduen kasuan, ikastetxeak familiei eta ikasleei ematen dien informazioa hobetzea. Informazio horrek gurasoak beren seme-alabek ikastetxean egunero bizi duten errealitatea ezagutzera inplikatzeko.

- Ikastetxeen webguneak baliatuz zerbitzu eta jarduera berriak sortzea: esaterako, ikasleek berek eremuetako edukiak kudeatzea; irakasleen blogak puntu berean sartzea; hezkuntzako materialak eta baliabideak argitaratzea edo zerbitzuetara sartzeko puntu bakarra gurasoentzako (laguntzei buruzko informazioa, ikasturtearen hasiera, liburuak, tutoretzak...) eta irakasleentzako (eskualdeko web-aplikazioak, webmail-a, barneko mezularitza-sistema, gelak gordetzeko sistema, baliabideak eta materialak, etab.).
- IKTen erabileran sakontzea. Ikastetxearen webguneak gurasoak eta ikasleak Internetera sartzera "gonbidatzen" ditu, "lantzadera" bezala balio du (esteken bitartez) administrazioek hezkuntza alorrean ematen duten informazioa ezagutarazteko.

Eskualdeko, probintziako eta ikastetxe-multzotako hainbat proiektu ere "Joomla" hartu dute eduki-kudeatzailetzat. Irakurtzera animatzeko lehiaketak bezalako esperientziak ditugu, horietan Toledoko probintziako ehunka ikasleek parte hartu dutelarik (<http://edu.iccm.es/leyendas>); baita hainbat ikastetxe edo elkarbizitzari buruzko informazioarako webgune hartzen dituzten Europako proiektuetarako lan-taldeak ere.

Landa-ikastetxeetako esperientziak ere

oso adierazgarriak izan dira. Horiek, zenbait herrixkatan (zenbaitetan elkarrengandik oso urruti) sakabanaturik daudenez, webgunea elkargune birtual gisa eta beren komunitate osoarentzako informazioarako gune bezala erabiltzen dute. Hala, "Valle del Bullaque" TLI (<http://edu.jccm.es/cra/bullaque>), "Manchuela" TLI (<http://edu.jccm.es/cra/manchuela>) edo "San Isidro" TLI (<http://edu.jccm.es/cra/sanidro>) bezalako ikastetxeak web atari apartak garatzen ari dira.

Esperientzia asko dira, eta ezin diegu tokiarik egin ikastetxeen atariak sortu dituzten ikastetxe ugariei. Beraz, ikastetxeen direktorio honetan bilatzera gonbidatzen zaituztegu: <http://edu.jccm.es/joomla15>


Emaitza: 400dik gora ikastetxek darabilte Joomla.

Denborak aurrera egin ahala, *apustua* ona izan zela erakutsi da.

400dik gora ikastetxe dagoeneko edukiak kudeatzeko tresna hori erabiltzen ari dira. Joomla sistema Kontseilaritzaren beste egitasmo handi batzuetan ere erabili da: esaterako, "Parte hartzearen inguruko Blog"ean (edu.jccm.es/participa), Europar Batasuneko autonomia erkidegoen koordinazioari buruzko webgunean (Hezkuntza Batzordea) edo Gaztela-Mantxako Hezkuntzari buruzko Legearen inguruko eztabaidan.

Sarrerei buruzko hileroko estatistikek gure ikastetxeen web atariaren inguruan interes handia dagoela erakusten dute. Hilabete bakarrean ikusitako 60.000 orrialde baino gehiago dituzten ikastetxeak ditugu, eta hileroko 20 webgune bisitatuenen zerrenda bat⁴ argitaratzen dugu.

Egitasmo honen arrakastaren zati handi bat ikastetxeek edukiak kudeatzeko sistema hori erabiltzeko emandako askatasunean datzala uste dugu. Ikastetxeek eduki-kudeatzailerak instalatu, konfiguratu eta beren edukiak argitaratzen dituzte. Irakasleek tresna aurkitu dute, beren kideek erabiltzen zutelako ematen dituen aukerak ikusi dituzte eta, Kontseilaritzak "Joomla"ri buruz emandako informazio zabala baliatuz, beren web atariak konfiguratu dituzte, beren ikastetxearen egokikitutako diseinuarekin, zerbitzu dinamiko batzuekin eta ezaguri propioekin. Ez dugu eman tresna



pribatibo, itxi edo uniformerik; ezta "Joomla"ren banaketa pertsonalizaturik ere. Software irekia bilatu dugu, baliabideak emanez, prestakuntza erraztuz eta instalatu eta konfiguratzeko argibideak emanez. Irakasleek hori aprobetxatu eta atari dinamiko konplexuak sortu dituzte, hezkuntza komunitate osoa bertara sartu eta parte hartzeko aukera ematen dutenak.

Eta, laburbilduz, artikuluko honen hasieran aipaturiko "zer egiten dugu", "non gaude" eta "nortzuk gara" bezalakoak idazte hutsetik haratago dituzten aukerak ezagutu dituzte. Liburutegiko liburuak datu-basean sar ditzaketela, erabiltzaile jakin batzuei dokumentazioa ezkatatu eta gorde diezaietela, parte hartzeko guneak sor ditzaketela eta ikasleen gurasoei bideo eta argazkiak erakutsi diezazkietela ikusi dute; baita ikasleak ikastetxearen webgunerako edukien sorkuntzaren zati direla ere.

Hitz batez, beren "Ikastetxeen web atariak" sortu dituzte, zaharkitutako HTMLen "eskuz" egitea ezinezkoak diren zerbitzu dinamiko eta irekiak dituztenak.

Orain guztiak izan daitezke beren ikastetxeko webgunearen partaide.

Ikastetxeen webgunearen etorkizuna

Zalantzarik gabe ikastetxeek Interneten duten agerpena bilakatzen ari da, horiek kokaturik dauden komunitateetara bideraturiko benetako plataformetara. Komunikazio-gune horien baitan tresna berriak etengabe ari dira sartzen. Ikastetxeen eta sail pedagogikoen blogak sartzeak, bertakoei bat-batean bidalitako informazioan *microblogging* delakoa erabiltzeak, bide-

oen eta aurkezpenen kanalak ezartzeak, horietan ikastetxea osatzen duen hezkuntza-komunitatearentzako sortutako eta beraiek sortutako eduki digitalak dituzten biltegiak egoteak berrikuntza gure eskualdeko eskola eta institutuen errealitatean funtsezko gakoa izatea eragiten du.

Oinarritzko urratsa ikasleek hezkuntza alorreko beren esperientzien berri ematen modu adierazgarrian laguntzen dutenean egingo da; eta horrek benetako hezkuntzako eta gizarteko sarea sortzea ahalbidetuko du, hezkuntza-plataforma horien eza-gutzak sortu eta sartzean oinarrituriko heziketa-formula berriak emango dituenak. Erabiltzaile mailan ez ezik zerbitzuak integrazteko mailan eduki-kudeatzailerak eskailagarriak eduki beharra ezinbestekoa da bilakaera hori bermatzeko.

Joomla, dituen ezaugarriengatik, lorpen horiek eskuratzeko formula aparta da. Gaztela-Mantxako Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritzak mota horretako tresnen aldeko apustua egin du eta hezkuntza-komunitate osoak bere eguneroko jardunean erabil dezan animatzen du.

Esteka interesgarriak:

Gaztela-Mantxako ikastetxeen webguneak. Euskarria emateko zentroa (Joomla): <http://edu.jccm.es/joomla15>

Joomla EKSaren webgune ofiziala: www.joomla.org

Gaztela-Mantxako Hezkuntza eta Zientziaren Ataria: www.educa.jccm.es

Bibliografia:

Marqués Graells, Pere: "Plantilla para el análisis de una Web de centro", en red: <http://www.pangea.org/peremarques/webcentro.htm> (2003)

Puente, Ángel: "La página Web del centro educativo. Criterios de calidad", en red: <http://observatorio.cnice.mec.es/modules.php?op=modload&name=News&file=article&sid=600> (2008)

Mur, F y Serrano, C: "Elaboración de una Web docente", en red: <http://www.5campus.org/leccion/webdocente> (2006)

Moreno, Antonio José: "Diseño de páginas Web educativas", en red: <http://observatorio.cnice.mec.es/modules.php?op=modload&name=News&file=article&sid=610&mode=thread&order=0&thoid=0> (2008)

¹HyperText Markup Language (Hipertestua markatzeko lengoia). Web orrialdea sortzeko lengoia.

²Kasu honetan, Webgune bat instalatu eta administratzea ahalbidetzen duen programa. Datu-base bat edo zenbait kudeatzen dituen interfazea izan ohi da eta, eduki mailan, datuen diseinua banatzen du, modu errazean Webgunea aldatzeko aukera emanez. Mota horretako sistemak hainbat maila edo erabiltzaile-profiletan kudeatzea ere errazten du.

³"Joomla" Webgune bat sortu eta administratzeko aukera ematen duen kode irekiko softwarea da.

⁴<http://www.educa.jccm.es/educa-jccm/cm/profesorado/temas/ranking>

QUEERFILTER

Tailrank

scoop

Supr glu

COMMONPEOPLEMUSIC.COM



Pligg +

TOXIC/CYBEROLIST GAMING NEWS

AJAXwith
Resources & Information

populicias.com

WOBBLOG! alpha

newsgarbage beta

TapeMoi!

Staralicious

SPYMY
Spying the real lives

APBNews.com

mashUP v. 1.0

socialporn
You must be over 18
in order to use this site

HyperSuper SCOPEO*

memeorandum

NEW VOYAGE NEWS

kick.ie

FUZZ (beta-1)

gather BETA **Blogocracia**

fuddle-duddle

newsvine
Get Smarter Here.



LIBERTONIA
7 ans d'archives pour le futurisme. 50 ans de futurisme, toujours futur.

FARK.com It's not news, it's

diglog

Curious Contraptions

Blagniscient
The bird's eye view of the Blogosphere

xanga.com
THE WEBLOG COMMUNITY

bibilog.com

ecademy
connecting business people

DiggClone
a clone of the digg.com engine

The Daily Heg

HyperSuper SCOPEO*

socialporn
You must be over 18
in order to use this site

memeorandum

NEW VOYAGE NEWS

kick.ie

FUZZ (beta-1)

gather BETA **Blogocracia**

fuddle-duddle

newsvine
Get Smarter Here.



LIBERTONIA
7 ans d'archives pour le futurisme. 50 ans de futurisme, toujours futur.

topix.net

SQUIDOO
Everybody's got secrets

SHOUTWIRE



geekmattr
grab for the geeks, by the geeks

CommonTimes

blinklist beta **LookSmart FURL**



wink BETA **orkut**

athiphop.com

shadows

Formaziorako
Online
tresnak

Moodle

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, EIBZn, irakaskuntzan euskararen erabilera errazteko egiten dugu lan. Ematen ditugun ikastaroek eta jarduerak irakasleen hizkuntza maila hobetzea dute helburu, eta, aldi berean, euskaraz errazago lan egiteko baliabide didaktikoak zabaltzea ere bai.

EIBZ 2002an sortu zen, eta hasieratik on line formazioa bultzatu dugu; gainera, denbora aurrera joan ahala, gure eskaintza zabaldu egin da. Eskaintza zabaltze horretan, eragin handia izan du gure jardueretako partaideen egoerak, normalean, gure zentrotik oso urruti lan egiten dutelako; teknologien aurrerapausoak laguntza handia izaten ari dira pertsonen arteko komunikazioa errazteko bidean.

On line ikastaroak eskaintzen hasi ginean korreo elektronikoa, CDa eta foroa erabiltzen genituen. Tresna horiekin elkarrreragina eskaintzeko aukera izaten genuen, baina tresna hauek ez dira erabiltzen errazak, eta, ikastaroen eta partaideen kopuruak gora egiten zuen heinean, kudeaketa korapilatzen joan zen.

Horrez gain, edozein ikastetxetan gertatzen den moduan, irakasle batzuek bide berriak probatu nahi zituzten, eta plataforma baten laguntzaz lana errazagoa izango zela ziurtatzen zuten. Hasieran argi ez baneukan ere, gaur egun arrazoi zutela aitortu behar dut. Moodlek gure lana errazten du, gure egunerokoan tresna erabilgarria da.

Sagrario Crespo

EIBZ

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa



Aurtengo eskarmentua ona izan da: plataformara zenbait on line ikastaro egokitu dugu, berriak sortu ditugu eta aurrez aurreko eskoletarako materiala moldatzen ari gara bertan erabiltzeko. Orotara, 23 ikastaro (horietako batzuk lan taldeak dira) eta 500 erabiltzaile baino gehiago ditugu.

Lehenengo pausoak: instalazioa eta formazioa

Zergatik aukeratu genuen Moodle? Tresna hau euskarara itzulita zegoelako. Hala ere, irakasle formazioan *Dokeos* plataforma ere erabili genuen. Horrela, biak alderatzeko aukera izan genuen, eta aztertu genituen bakoitzak dituen baliabideak, erabilerrak, rolak eta abar. Prestakuntza hau *blended* motakoa izan zen: hasierako saioak on line egin genituen, eta, ondoren, aurrez aurrekoetan, on line atalean sortutako zalantzak argitzeko eta on line tutorearen lana nolakoa den hobeki aztertzeko aukera izan genuen, eta gure lan egiteko moduan horrek dituen ondorioak ere aztertu genituen. Ikaslearen tokian jarri ginen eta geure buruari galdetu genion guretzat zer zen errazagoa, zerk laguntzen zigun lan egiten, zein zen erronkarik handiena, zerk errazten zuen elkarlana, zerk ematen zigun informazio gehien... Hau da, inguru berri honetara hurbiltzeko, alde batetik, guretzat ezinbestekoa da tresna erabiltzeko oinarritzko formazioa, eta, bestetik, aurrez aurreko saioetatik on line edo *blended*-etara pasatzeak gure lan egiteko eran dituen ondorioak ezagutzea.

Memento horretatik aurrera, martxan zeuden on line ikastaroen materiala egokitzen

hasi ginen, eta, ballabide honen aukerak eta mugak ezagutu ondoren, ikastaro berriak diseinatzera pasatu gara. Hauek prestatzen hasitakoan, argi izan dugu plataforman lan egiteko prestatzen ari ginela.

Nafarroako beste ikastetxe batzuetan bezala, Hezkuntza Departamentuak eskaintzen duen zerbitzaria erabiltzen ari gara. Moodle PNTERen zerbitzuaren laguntzarekin instalatu genuen, eta ikasturtean zehar egin beharreko mantenu lanetan ere ondoan izan dugu. Ez gara informatikoak eta ditugun programazio ezagutzak oso txikiak dira, beraz, ezinbestekoa izan da PNTERen lankidetzeta eta laguntza.

Gaur egun, 1.9. + bertsioa ari gara erabiltzen, eta Moodlek duen itxura bere horretan utzi dugu. Oraingoz, egokiagoa iruditzen zaigu dagoen bezala uztea eta gure indarra edukietan jartzea. Ikastaroen egitura eta materiala sendotutakoan hasiko gara gure plataforma besteetatik bereizteko zein nabardura nahi dugun pentsatzen. Bestalde, egokia iruditzen zaigu Moodlek duen hiru zutabeko antolaketa, eta ikastaroen egileen esku uzten dugu bertan zer eskaini. Plataformak duen uniformetasunak bere alde ona ere badu: ikasleak badaki zer aurkituko duen eta non bilatu behar duen. Behin ikastaro batean tresnarekin ohiturik, hurrengoetan ez du berriro ikertzen aritu beharko.

Administratzailea naiz

Gure ikastetxea txikia denez, informazioaren trukaketa etengabe gertatzen da, be-

raz, administratzailearenganainoko bidea zuzena da, eta erabiltzaileek oztopo gutxi izaten dute aldaketak, zuzenketak eta hobekuntzak proposatzeko. Arazoren bat dagoenean, informazioa berehala transmititzen da alde batetik bestera.

Behin instalatu ondoren, Moodlek ez du denbora asko behar mantenu lanak egiteko, baina arreta handia eskatzen duten bi une daude: ikasleen matrikulazio garaia eta segurtasun kopiak egiteko garaia. Era berean, gogoan izan behar dugu Moodlea lehenengo aldiz hurbiltzen den irakaslea ezin dugula erronka honen aurrean bakarrik utzi.

Matrikula

Prebentzioagatik ibxita dugu norberak izena emateko aukera, kanpo matrikulazioa ez dugu onartzen eta ikasleen hasierako datuak eta fitxa guk betetzen ditugu. Horretarako, Moodlek baimentzen duen matrikulazio masiboaren aukera erabiltzen dugu: datuak csv artxibo batean bildu, eta, plataformak korreo bera bi aldiz erabiltzen uzten ez duenez, aurretik datu basean daudenak ez ditugu eguneratzen.

Parte hartzaile bat inskribatu bezain pronto, harremana Moodle plataformaren bidez egiten dugu eta barne mezularitzaren bidez bidaltzen dizkiogu bere erabiltzaile izena eta pasahitza. Hasierako fitxan oso datu gutxi jartzen ditugu, eta lehenengo mezu horretan eskatzen diegu datu horiek osatzeko. Oso gutxi osatzen dituzte datuak, eta are gutxiago dira argazkiren



bat jartzen dutenak, nahiz eta fitxa horiek oso lagungarriak izan ikastaroan zehar elkarrengana hobia izateko. Ikusi dugu batzuetan nahikoa izaten dela lan horretan lagun pare bat animatzea, beste guztiak ere animatzeko. Dударik gabe, irakasleen fitxek beteta egon behar dute, duela gutxi ateratako argazkiak barne.

Baimenak eta rolak

Ikastaroetan parte hartzeko, Moodlek rol aukera handia eskaintzen du, eta daudenekin moldatu gara, baimen motak aldatu gabe: irakasle-editorea, irakaslea eta ikaslea.

Gure ikastaroetan ez dugu *bisitari* rola eskaintzen. Gure ikastaroetan izena eman dutenek besterik ezin dute parte hartu, eta, sortutako materialen bat konpartitzeko modukoa dela pentsatuz gero, denen esku jartzen dugu webgunearen bidez.

Materialaren diseinua

Baliabide asko ez dugunez, guk geuk jokatzeko ditugu rol guztiak: aldi berean, irakasle-editore, irakasle eta ikasle gara.

Gure lanak aurrera eramateko gune berri bat behar dugunean, administratzaileak ikastaro berri bat irekitzen dio, eta eskatu duenari irakasle-diseinatzaile rola ematen zaio. Hortik aurrera lagun horren esku daude bai diseinua, bai materiala, bai ikasleen kudeaketa ere.

Moodlen barrena ibiltzen badakien irakasleari autonomia handia ematen dio; lehenengo aldiz hona hurbiltzen direnei, orde, segurtasun eza. Inportantea da

hasieran irakaslea bakarrik ez sentitzea, eta aldaketa aurrera eramateko, tresna berria ezagutzeko eta bertan eroso mugitzeko beharrezkoa den laguntza izatea. Hasieran ez ezik, laguntza hau ikasturtean zehar ere jaso behar du, aholkularitza gertu duela sentitu behar du.

Materialak diseinatzeko ez dugu software berezirik erabiltzen. Irakasle bakoitzak bere materiala kudeatzen du, eta, erabaki honen ondorioz diseinuaren ikuspuntutik emaitza oso ikusgarriena ez bada ere, oso malgua da aldaketak egiteko. Gutako bakoitzak ikastaro baten edozein zati goitik behera alda dezake edonoiz. Hasieran nekagarria izaten da lan handia ekartzen duelako, hala ere, denborarekin atsegina da inoren menpe ez egotea eta egin nahi diren aldaketak berehala egin ahal izatea.

Ikastaro batzuk *pdf* eta *ppt* fitxategi bildumak baino ez dira, beste batzuek web diseinu gehiago dute. Irakasle batzuk *e-learning* programa erabiltzen hasi ziren, baina aldez aurretik *dreamweaver* erabiltzen genuenez, errazagoa zaigu dakigun gutxi hori erabiltzen jarraitzea, programa berriak ezagutzen hastea baino.

Euskaraz lan egiten dugunez, aldez aurretik diseinatutako beste material asko ez dugu eskura izaten. Gainera, ikasgaiak desberdinak direnez, konpartitzeko aukera gutxi izaten dugu. Horren alde ona da oso zaila dela gure plataforman material bikoiztua aurkitzea.

Ikasleak gidatzea ere irakaslearen esku gelditzen da, eta, ikastaro guztiak nahiko antzekoak badira ere, batetik bestera desberdintasunak aurki ditzakegu. Oro har, ikasleek ez dute berariazko formaziorik jasotzen plataforma nola erabili behar duten ikasteko. Ikastaroak has genitzake oinarritzko formazioa ematen (plataforma zer den eta bertan nola lan egin), baina gure ikastaroen helburuak bestelakoak direnez, informazio hori alde batera utzi dugu: ikastarotxo bat diseinatu dugu, eta, azalpenak eman beharra sortu ahala, ohiko galderei erantzuteko *pdf* gidatxoak jarri ditugu bertan; plataformako kide guztiek eman dezakete izena ikastaro horretan. Ikastaro berri bat hasten denean, ez ditugu bertan dauden jarduera guztiak eskaintzen, ez ditugu-eta ito nahi.

Lehenengo egunetan, ikasleak lan egiteko modu honetara egokitzen hasteko lan pare bat bakarrik egoten da ikusgai.

Mantentze-lanak

Material asko dago irakasleari laguntzeko, baina administratzaileari laguntzeko ezer gutxi dago; beraz, Moodleko komunitateko foroetan informazioa bilatzea beste erremediorik ez dago. Litekeena da beste norbaitek aurretik antzeko kezak sentitzea, zalanza eta arazo berdinak izatea.

Ikastaroak martxan dauden bitartean ahalik eta aldaketa gutxien egiten saiatzen gara, ia bat ere ez: hobe da halamoduz lanean jarraitzea erabat blokeatzea baino. Ia ikaslerik ez dagoen garaia baliatzen ditugu garbiketa egiteko, esperimentatzeko, beste tresna batzuk nola funtzionatzen duten ikertzeko, hobekuntzak proposatzeko...

Lauhilabeteko aldaketek aparteko lanak ekartzen dituzte: aurretik emandako ikastaroak berreskuratu, pasatutako zeregina garbitu... Arazoa izaten da ikasleen erregistroa zenbat denboraz gorde behar dugun erabakitzea. Ikastaroak egiten dituztenei ziurtagiriak ematen dizkieguenez, epe batzuk errespetatu behar izaten ditugu, baina, ezabatu gabe utziz gero, plataformen taulek pisu handia hartzen dute eta arazoak ematen dituzte.

Ezinbestekoa da aldizka ikastaroen segurtasun kopiak egitea; gainera, irakasleek beraiek ohitura hartzen badute, beti eskura izango dituzte.

Moodlek plataforman integratzeko prest dauden tresna asko ditu (moduluak eta blokeak), batzuk berezko instalazioan aurki ditzakegu eta beste batzuk erabiltzaileek garatu dituzte. Oraindik oinarria ikertzen ari garenez, ez gara bestelako zerbitzuak gehitzen hasi. Oraingoz, erantsi diogun modulu ez estandar bakarra inkestak egiteko aplikazio bat izan da.

Tutorea naiz

Nire iritziz, tutore izateko ezinbestekoa da aurretik ikasle izatea, eta, noiz edo noiz, interesgarria da rol hori berreskuratzea ikasleen tokian sentitzeko, plataforma aurrean gaudenean zer estrategia erabiltzen ditugun hobeto ezagutzeko eta jakiteko. Eskarmentu honek gure eginkizunak hobeto betetzen laguntzen digu, adibidez, daukagun informazio guztia ematea beharrezkoa ez dela jakitun izaten: horrela eginez gero, Moodlen zerrenda luze bat aurkituko dugu eta parte hartzaileak ez du jakingo nondik hasi, lan bat begiratu du, beste iradokizun bat atertuko du eta zerbaitean sakontzen hasi nahi duenerako, ikastaro uzteko garaia

helduko zaio.

Moodlera salto egiten dugunean, irakasleak harritu egiten dira ikasleei buruzko informazio asko dutelako eskura; Moodle dena kontrolatzen duen tresna da: noiz lan egiten duten, zergatik parte hartu duten, zer kostatzen zaien gehien... Gure kasuan, erabilerarekin espero ez genituen ohitura batzuk aurkitu ditugu, adibidez, guk ez dugu ez notarik, ez puntuaziorik jartzen, orduak justifikatzen dituen ziurtagiria ematen dugu bakarrik. Ikasleen ohiturak ikertzean, ikasleek kalifikazioa askotan kontsultatzen dutela ohartu gara (gai-ez gai). Horren eraginez, berraztertu egin behar izan ditugu plataforman erabiltzen ditugun kalifikazio irizpideak, eta agerian gelditu da hasieratik argiak izan behar dutela.

Denborarekin ikasi dugu ongi diseinatutako foroak oso tresna kolaboratzaile onak direla, esaterako, talde txikitan banatuta eta denbora berean (aste batean edo bitan, gehienez) lan egiteko foroak. Foro mota honetan parte hartzea oso aktiboa da eta irakaslearen feedbacka oso txikia izanda ere, taldeak ongi egiten du lan. Modu berean, galdera-erantzuna foroetan ikasleak bere erantzunak beste ikaskideenekin konpara ditzake.

Ikastaroaren hasieran, ikasleak martxan dauden foroetara harpidetzen ditugu, eta, horrela, mezu andana jasotzen dute korreo elektronikoan. Gutunontzia etengabe beteta aurkitzeak gogorarazten die ikastaroa hasia dela. Egun pare bat pasatu ondoren, beraien esku uzten dugu foroetan harpidetuta jarraitu edo ez.

On line ikastaro guztiek bezala, hasieran arreta handia eskatzen dute, ikasle guztiak lanean hasi arte estu jarraitzea. Moodlen hasiberriak diren irakasleekin egiten dugun bezala, ezin dugu bakarrik utzi plataformara egokitzen ez delako ikastaroa uzteko prest dagoen ikaslea: bere helburua ez da Moodle erabiltzen ikastea, hizkuntza hobetzea baizik.

Bestalde ikasle batzuk beren ikaste-txean batzen direnean (Otsagin, Lizaran...), oso elkarlan eraginkorra egiten dute plataforman eta plataformatik kanpo. Lan hori oso aberasgarria da eta ez dugu ekidin behar.

Ondorio batzuk

Pribilegiatu sentitzen naiz oraindik arlo honetan ikertzeko lan handia gelditzen delako eta gure zentroak funtzionatzen duten ereduak transmititzeko eta elkar-lanean aritzeko talde lana errazten dugulako.

Hasieran, on line ikastaro guztiak bezala, Moodlek lan handia eskatzen du, bai administratzailearentzat, bai tutore-entzat, baina, behin lanean hasita, oso atsegina izaten da.

Erabiltzaileekin interakzioa oso ona izaten da, eta, oso denbora gutxian, eskola arruntetan gertatzen den moduan, ohiko rolak aurkituko ditugu: ikasle aplikatua, oso abila ez dena, laguntzailea...

Plataformaren administrazioari dagokionez, garrantzitsua da bertan egotea, zerbitzua eskuragarria izatea eta azkar erantzutea. Erabiltzaileek segurtasuna eta lasaitasuna sentitu behar dute, tresna ez dadin oztupo izan beren lanean aurrera jarraitzeko.

EIBZko ausartenak beste baliabide batzuek eskaintzen dizkieten aplikazioak ikertzen hasi badira ere, oraingoz, beste gainerako irakasleak Moodlera erakarrarazten ari gara eta, ikastaroetan erabiltzeaz gain, beste egiteko batzuetarako ere hasi gara baliatzen: bilerak planifikatzeko, gaiak eztabaiatzeko, aktak bideratzeko...

Erreferentzia batzuk

Moodle eskuliburuak: http://docs.moodle.org/es/Manuales_de_Moodle

Euskaraz: http://www.axular.org/eskuliburua/Moodle_eskuliburua.pdf

Exelearning
<http://sourceforge.net/apps/trac/exe/wiki>

EIBZ: <http://centros.educacion.navarra.es/eibz>





Hala ere... Zer da web 2.0?

Ondorenez, guztia errazagoa izango da erabiltzailearentzat. Izan ere, adierazi nahi duenaz bakarrik kezkatu beharko da.

WEB 2.0: IKT eskumenak eskuratzeko aplikazioak eta zerbitzuak

Celestino Arteta Iribarren

kala, hierarkikoa eta eskusiboa izan da, eta aldi berean, ikasleak jasotzaile pasibotzat jo dira. Bestalde, ezagutza digitala oinarri duen gizartearen gaur egungo eta etorkizuneko ikaskuntza, ordea, horizontalagoa eta irekiagoa da, eta ikasleak laguntzaile aktibotzat jotzen dira.

Gai horri buruz mintzatzen den ia mundu osoak iraultza izugarria gertatu dela baieztatu du, hots, aldaketa garrantzitsua Internet erabiltzeko moduan, eta horrek eragin sakona izan du gure eguneroko eremu pertsonalaren nahiz lanbide-eremuaren gain. Iraultza hori da, hain zuzen, hezkuntza-munduan lantzen ari dena, batik bat, jarraian ikusiko ditugun lanabesak eta zerbitzuak erabilita. Egia da, oraindik, eta orain aztertuko ez ditugun ingurubar ezberdinen ondorioz, irakasle gehien-goak Internet ez duela erabiltzen ikasgeletan, baina ziurrenik ere herri administrazioen bulkadari, Estatuaren Eskola 2.0 nahiz Integratic programei esker, hemen Nafarroan, web 2.0 tresnak irakaskuntza-praktikan modu orokorrean aplikatuko dira, eta eskola curriculumaren barnean hartuko ira. Tresna horiek agertu arte ikaskuntzaren paradigma instruktiozkoa, berti-

Hala ere, zer da web 2.0? zeintzuk dira horren ezaugarriak?

Teknologiaren ikuspuntutik, nabigatzailetik sarbide eskuragarriak ahalbidetzeko zerbitzua eskaintzen duten aplikazioak dira. Hori ohituta gauden egoeraren aurka dago, hots, gure ordenagailuan software-aplikazioak instalatzea. Bestelako nortasun-zeinua RSS tresnak dira, edo, beste hitz batzuetan esanda, edukien Sindikazioa, "edukien zabalkundea" bezala ezagutzen dudana, bederen. Hain zuzen ere, erabiltzaileek sortutako edukiak nire ordenagailura horien bila joan gabe iristen direla esan beharra dago. Nire ustez, Internet berriaren iraultza handia gertatzen ari da. Gainera, estandarrak erabiltzen dituzte, horien artean, CSS moduko orriak edo XHTML bezalako programazio-lengoiak, formaren edukia bananduta.

Erabiltzailearen ikuspegitik, gizarite web izeneko bultzatu da. Ikasleak edo irakasleak, kasu horretan, ez ditu irakurtzen edukiak modu pasiboan, horiek sortu baizik. Gainera, lizentzia- eta bana-keta-modu berrien bidez partekatzen ditu: Creative commons, copyleft...eta besteek ekarritako edukietan oharren eta balorazioen bidez parte hartzen du. Hortaz, irakurketa eta eskriturako weba dela esan behar dut. Halaber, erabiltzaileek informazioa katalogatzen dutela nabarmendu behar da. Etiketak edo tagak erabiltzen dituzte web-mota horrek sortzen duen informazio-kopuru handia errazago berreskuratu ahal izateko. Internautek sarera igotzen duten guztia (irudiak, bideoak, blog-gauzak, wikiak, gogokoak, e.a.) etiketatuta ageri da, horien berrerabilera ahalbidetzeko. Horregatik, folksonomiak edo elkarlaneko sailkapenak sortuko dira.

Ezaugarri horiek guztiak direla medio, web 2.0 eta horien aplikazioak erreferentzia-esparrua izango dira irakasle-entzat, batik bat, sekuentzia didaktikoak programatzeko unean, HLOk Derrigorrezko Hezkuntzaren gutxieneko irakaskuntza-dekretuetan jasotako oinarritzko eskumen bat erdiesteko xedearekin: Eskumen digi-



tala. Eskumen horrek ondoko trebakuntzak ahalbidetzen ditu: informazio bilatu, esku-ratu, prozesatu eta komunikatu, hori eza-gutza bihurtzeko. Horren bidez, ikasleek euren ikaskuntzak jorratu ahal izango di-tuzte, hainbat iturritik lortutako datuak oinarri hartuta, eta horrez gain, besteekin batera ikasiko dute, elkarri lagunduta. Trebakuntza horiek jarraian azalduko ditu-gun aplikazioen eta zerbitzuen bidez ga-ratu eta eskuratu ahal izango dira. Hala, web 2.0 tresnaren definizio egokia Lize de Clercq-en blog eklektikoan aurkitu dut "Web 2.0 lerroko web-zerbitzuen eta -aplikazioen belaunaldi berria da, eduki digitalen argitalpena, partekatzea eta he-dapena ahalbidetuta, lerroko lankidetz-a eta elkarreragina sustatuz eta online infor-mazioa bilatu nahiz antolatzeako tresnak eskainita."

Web 2.0 tresnaren definizioa ikusi ondoren, baita horren ezaugarriarik nabarmenenak ere, aplikazioak eta zerbi-tzuak aztertuko ditugu, funtsean, hezkun-tza-munduekin lotuta daudenak. Has-teko, tresnez eta aplikazioez betetako mundu oso horren ardatz nagusia **sarea da, Internet da**. Gure ordenagailuaren disko gogorrak eta bertan instalatutako aplikazioek IKTrekin zerikusia duen jard-ua menderatzen zuten bitartean, orain nabigatzailea basoko erregea da. Horrek hezkuntza-hardwarearen gain eragin han-dia izan du. Izatez, ez da beharrezkoa

ekipo handiak eta garestiak edukitzea, ezpada ordenagailu eramangarri txiki eta merkeak edota Notebookak erabiltzeko joera argia dago. Ezinbestekoa da, bene-tan, kable bidezko edo hari gabeko banda zabaleko konexio ona izatea, zentroko gela guztietan eskuragarri izanda. Hala, beste ondorio nabaria da **ez dela kontuan har-tuko zein makinetan lan egingo den**. Beraz, zentroko ordenagailuan zeregin bat egiten hasi daiteke, etxeko ordenagailu eram-an-garrian jarraitu edo auzoko liburutegiko ordenagailua erabili lana amaitzeko eta irakasleari posta elektronikotik bidailita.

Hezkuntzaren ikuspuntutik, web 2.0 izenekoaren bi tresna bikainak hauek dira: **bloga** : webgunea, sarreraren (postak) berehalako argitalpena ahalbidetuta, eta irakurleek egileari atzeraelikadura emango dio ohar ezberdinez baliatuta. Sarrerak modu kronologikoan antolatuta geratzen dira, azkenetik hasita. Bigarrena **wikia** da: eraikuntza kolektiboko webgunea, gai ze-hatz batekin, erabiltzaileek edukiak gehitu, ezabatu edo editatzeko askatasunarekin. Baieztapen horren funtsezko arrazoia bi horiek erabiltzaileen egindako ekoizpen guztien edukiontzi gisa jarduten dutela izan da. Halaaber, 2.0 zerbitzu gehienek erabiltzaileari plataforma horien edukiak "sakontzeko" kodea eskaintzen die. Erabil-tzaileak bakarrik toki egokian kopia-tu eta itsatsi behar du, batez ere, bideoak, au-dioa, mapak, inkestak eta beste hainbeste

eduki behar bezala ikusi eta besteekin partekatzeko **RSS sindikazioaren** bidez. Bi plataformak, blogak bikaintasunez egiteko, **Blogger** eta **Wordpress** dira. Gainera, beste batzuk aipatu ditzakegu: **nireblog** (euskara), **blogia**, edo **Typepad**. Wikiak sortzeko garrantzitsuenak **Wikispaces** (irakasleentzako atal zehatzare-kin), **Wetpaint**, **Nirewiki** (euskara), **Media-wiki** dira.

Hain zuzen ere, **RSS sindikazioa**-ren kontzeptuak informazioa interneten eskuratzeko modua aldatu du. Bada, **RSS** teknologia webguneetako edukien gaurko-tzeak hedatzeko sortu zen, nahi duten irakurleek berrikuntzak jaso ahal izateko halakoak bisitatu gabe. Ohar horiek jasotzen dituzten programak edo aplikazioak eta edukiak ikustea ahalbidetzen digute-nak gehigarriak deitzen dira. Zeregin hori gauzatzeko nabigatzaile egokia **flock** da. Izan ere, horrek gehigarria edo feeden irakurgailua barnean hartzen du. Hona hemen bestelako gehigarri garrantzitsuak: **Google reader**, **netvives**, **feedreader**, **igoo-gle**....

Hezkuntzari dagokionez, sindika-zioa oso garrantzitsua izan daiteke. Izatez, **blog**, **wiki**, **Podcast** edo bestelako **web zer-bitzuetan** argitaratutako edukiak banatu ahal izango ditugu, ikastetxeko kideen artean, ikastetxe ezberdinetako kideen artean (oso urrun badaude ere) eta familia-koen nahiz adiskideen artean.



Web 2.0 tresnaren bidez agertu-tako beste kontzeptu garrantzitsu bat gogokoak online zerbitzuen bitartez kudeatzea izan da. Ezagunena **del.icio.us** izan da, baina gaztelaniaz oso indartsu **Mr.Wong** sortu da. Horrela, gai zehatzei buruzko elkarlaneko eskola-zereginak egin daitezke, ikasle bakoitzak ordenagailurik izan gabe zerbitzu horietan gorde dituen gogokoak oinarri hartuta.

Web 2.0 horren bilakaera-prozesu oso horretan Googlek garrantzi berezia izan du. Izatez, batzuek tresna-multzo bat hezkuntza-izaeratzat jotzen dute, hala nola **Edugoogle** unibertsoa. Hori dela medio, **Gmail** (online postakudeatzailea) orrialdean kontu bat sortzeak unibertso horren atea irekiko dizkigu, tresna ezberdinak eskuragarri hauek izanda: **Blogger** (blogen sorkuntza), ofimatika (agiriak, aurkezpenak, formularioak, kalkulu-orria), Mapak, **Google earth**, **Wiki**ak (google site), **Picasa**..... Hori guztia eta gehiago linean egin ahal izango da. **Cloud working** edo lana hodeian (Internet) bezala ezagutzen da.

Halaber, web 2.0 zerbitzu gehien ezaugarriak nabarmenena osagai multimedialak jasotzea da. Fotoblogak, bideoblogak, podcastak...eduki horien ustiapen didaktikoa gauzatzeko ibilgu berriak irekitzen dituzte. Atal horretan jasotako aplika-

zio batzuk eredu izan dira erabiltzaileen-tzat. Zalantzarik gabe, irudiari eta argazkigintzari dagokienez, **FLICKR** nabarmendu da. Zerbitzu horretan, erabiltzaileek argazkiak igo eta gainerako pertsonekin partekatzen dituzte. Irudiarekin zerikusia duten bestelako zerbitzu interesgarriak hauek dira: Googleko **Photobucket** edo **Picasa**, eta produkturik berriena **Adobe Photoshop Express** izan da. Horietako gehien bidez, erabiltzaileek slideshowak edo aurkezpenak sortu ahal izango dituzte igotako irudiekin, eta gainera, blogetan nahiz wikietan jaso ahal izango dituzte.

Interneten aparteko moduan zabalduetako beste osagai multimedia bideoa izan da. Bideo-zerbitzu horren izarra, zalantzarik gabe, **YouTube** da. Guretzat interesgarriak diren edukiei buruzko kate tematikoak eta erreproduzio-zerrendak sor daitezke, batik bat, curriculum-gaien azalpenak osatu edo tokiei, arteari, berriei, abestiei, etab.i buruzko informazioa eskuratzeko. Zerbitzu horren beste ezaugarri bat filmeak telefono mugikorraren bidez sortu eta igotzeko aukera da. Bideoak biltze-giratzeko bestelako zerbitzu aipagarriak hauek dira: **Blip tv**, **Daylimotion**, **Nacional Geographic**, **Metacafé**, etab. Horrez gain, bideoen azpitu-tuluak ezartzea ahalbidetzen dizkiguten web aplikazioak daude, esaterako, **Mojiti**, **dotSUB**. Aplikazio horiek atzerriko hizkuntzetan lan egiteko interesga-

riak dira.

Web 2.0 tresnaren inguruko multimediararen hiruki magikoaren hirugarren erpina soinu da. Ildo beretik, blog eta wikietako soinu-edukiak grabatu eta argitaratzeko programa **PODCAST** da. Podcast bat ahotsaren grabagailu digitalaren edo antzeko gailuaren bidez audio-artxibo bat sortuko da MP3 formatoarekin, ordenagailuan edo gailu eramangarri ezberdinetan (iPod, telefono mugikorrak, soinu-ekipoak, USB memoriak, etab.) erreproduzitzeko aukerarekin. Ostean, artxiboa zerbitzari batean jasotzen da eta munduari RSS erabilita ezagutarazten da. Podcasten erabiltzaileak RSS feed (gehigarriak) zerbitzura harpidetuko da eta podcast berriei buruzko informazioa jasoko du, betiere horiek eskuragarriak diren neurrian. Podcastak sortzeko gune ezberdinak eta onak daude: **Odeo**, **Podomatic**, **Blip tv**, **Evoca**, **Goeat**, e.a....Gune horiek guztiek audioa blogetan eta wikietan jasotzeko kodea eskaintzen dute. Gaur egun, grabazioak online egiteko hainbat gune sortu dira, audio-fitxategia sortzeko software zehatza erabili gabe. (snapvine, audiopal, Vocaroo, Voki, Utterli, Podomatic...).

Internetek hezkuntzari, eta, oro har, pertsonen jardueraren bestelako eremuei (enpresa, zientzia, ikerketa, etab.)

WeblogsSL




Isopixel¹

Drupal muyblog

BLOGS FARM


REDACTORES.ES



CDYS noxvo

Whipertextual

ZUMO DE BLOGS



GeoViviendas.com



indiza


betiBETA
a03... iFavoritos



onkara

LastInfoO

La Coctelera



begira egindako beste ekarpen garrantzitsu bat Georreferentziarioa izan da. Toki horren deskripzioaren barruan, oinarritzko hitz gakoek edo hitz gako intentsiboez gain, deskripzio semantikoak eta argazkien eransketa, estekak, bideoak eta soinuak jasoko dira.

Googlen eskutik, hasieran Google earth tresnarekin, eta aurrerago Google Maps tresnaren bidez, erabiltzaileek mapak sortu ahal izango dituzte. Interneten zirkulazioaren duen ia dena espazioan lokalizatu daiteke. Gisa bertsuan, beste tresna batzuk agertu dira linean sortzeko, eta egitate historikoak, pertsonaiak, e.a. denboran nahiz kronologian kokatu ahal izateko. Denboraleroak dira. Horiek hezkuntza-balio handia dute, ikasleek ezagutza sor dezakete eta.

Horrela, webgune ezberdinak aipa ditzakegu: **Panoramio** (tokien irudiak lokalizatzeko), **Tagzania** "mundua etiketatuta", **Wikimapia**, **Jotie**, **placeopedia**, **Nomao** ... geolokalizatzeko besteak beste mashupak dira. Bada, **Youtube** (bideoa) edo **flickr** (irudak) programek, orobat, erabiltzaileek aurkeztutako edukiak georreferentziatzea ahalbidetuko dute. Denbora-lerroen atalean, zerbitzu hauek azpimarratu ditzakegu: **Xtimeline**, **Circavie**, edo **Remembre**.

Artikuluaren toki-eskakizunak dira: media, web 2.0 tresnatzat jo daitezkeen

hainbat zerbitzu eta aplikazio azaldu gabe geratu direla ohartu naiz: gizarte-sareak (**Facebook**, **Myspace**, **Ning**), flash aurkezpenak (**Slideshare**, **Issuu**, **Scribd**), e-learning plataformak (**Moodle**, **Atutor**, **Innova**), mundu birtualak (**Second live**), **Microblogging-a** (**twitter**, **Edmodo**), **Webquest**, **online jokoak** etab.. Nolanahi ere, zerbitzu horiek zentzua eta balioa izango dute eskola-curriculumaren barruan jasotako proposamenel edo sekuentzia didaktiko zehatzei begira bakarrik, erdietsi beharreko xedeei zuzenduta.

WEBGRAFIA

Hezkuntzarako web 2.0 tresnen zerrenda: <http://tinyurl.com/5vi63w/293>

Web 2.0 baliabideen bilduma: <http://www.go2web20.net/>

Web 2.0 baliabideen direktorioa. Ingelesez:

<http://www.c4lpt.co.uk/Directory/index.html>

Web 2.0 baliabideen bilduma wiki berezian: <http://especial.wetpaint.com>

Hezkuntza teknologikoa: <http://villaves56.blogspot.com/>

Web 2.0 gordelekua. Rosa Bernal: <http://lunica.weebly.com/index.html>

Web 2.0 Ari Gara Wiki Tresnak:

<http://arigara.wikispaces.com/>

Hezkuntza-planeta: hezkuntza-blogen gehigarria: <http://www.aulablog.com/planeta/>

Alejandro Valeroren blogei buruzko tutorialak: **Creación y uso educativo de blogs.**

Isidro Vidal: **Gestión y creación de blogs educativos.**

Wiki Aulablog21 Francisco Muñoz de la Peña: <http://aulablog21.wikispaces.com/>

Web 2.0 tresnei buruzko wikia: http://wiki.startup2.eu/index.php/Mapa_Web_2_0

Kontua del.icio.us helbidean web 2.0 esteka ezberdinekin: <http://del.icio.us/web20ae/>

Wikien adibideak: <http://isidrovidal.wikispaces.com/Ejemplos+de+Wikis>

Ikaskuntzarako web 2.0 100 tresna: <http://c4lpt.co.uk/recommended/>

Esteken bilduma, Pedro Cuestaren eskutik: <http://webs.uvigo.es/pcuesta/enlaces/>

José Cabrera. 2.0 eskolak. Etorikizuneko hezkuntza eraikitze gakoak:

<http://blog.cabreramc.com/2009/07/24/escuelas-20-claves-para-construir-la-educacion-del-futuro/>

Web 2.0 guneari buruzko dena. Maria Barceloren eskutik: **Web 2.0 Herramientas básicas.**

JAVIER ARROYO

*Santos Justo y Pastor Ikastetxe Publikoa
Fustiñana. Nafarroa*

La Tiza Digital 2000. urtean sortu zen, Fustiñanako Santos Justo y Pastor ikastetxean, web orriak editatzeko ikastaro bateko azken ariketa gisa. Ikastaro horretan parte hartu genuen irakasleok ohartu ginen web orri batek aukerak eskaintzen zituela hizkuntzarekin zerikusia duten helburu batzuk lortzeko, eta eskola egunkari baten ezaugarriak izanen zituen web orri bat diseinatzeko hasi ginen. Garai hartan blogak ez zuten gaur egun duten hedapena, eta Tiza Digitalaren formatua blog sinple eta erabilerraz baten moduan diseinatu zen.

Aplikazio guztia ikastetxeko irakasleek diseinatu eta idatzi zuten, aldizkaria eguneratzeko beharrezkoak ziren funtzionaltasun eta soiltasun baldintzetara egokituko ziren eduki edo administratzaileak apenas zegoelako.

Ondoren, web orria haziz joan da ikastetxearen webgune bihurtu arte. Ikasleen berrien eta parte hartzeen sarrerak jasotzeaz gain, bere azal orrian zintzilik daude ikastetxeko alegiazko ikasgelaren eta interesgarri deritzogun beste webgune batzuen loturak.

Hamar urte hauetan zehar la Tiza Digital Interneteko eskola aldizkariaren erreferentzia bilakatu da sarean.

Atrapasueños proiektuaren jatorria 2007ko ekainean dago, Kordobako Castro del Río herriko Virgen de la Salud Ikastetxe Publikotik gonbidapena luzatu zitzaizenean Espainia osoko ikastetxe publiko talde bati ikastetxeen arteko lurralde lankidetzaren proiektu batean parte hartzeko. Proiektuaren xedea izan zen esperientziak trukatzeko, autonomia erkidego desberdinen gizarte eta kultura aniztasunaz jabetzea eta ikasle parte hartzaileen curriculuma garatzea.

Proiektuaren helburu nagusia izan zen, ikastetxe honekin batera, garatzea hizkuntza trebetasunak sustatzeko bere programa, egunkariaren eta irrati digitalaren bidez.

Nafarroako Fustiñanako Santos Justo y Pastor ikastetxea hizkuntza idatziaren bidez egunero esperientziak trukatzeko ahalbidetzen duen eta elkarte honen kide guztien lokarri den "blog" honen sortzailea izan zen.

Proiektua hasierako fasean egon arren, dagoeneko lehendabiziko emaitzak sortzen hasi dira: ikasle parte hartzaileen arteko

bisitak, ikasle eta irakasleen artean mezuak trukatzeko, erkidego bakoitzaren berriak ematea eta batera jartzea, eta baita irrati programak ere.

Eta komunikazioaren teknologiei esker elkarte honek eskolako hormak gaindituko dituzten komunikatzeko bideak ezartzen ahal ditu.

Proiektua iraun duen bi ikasturteetan Atrapasueños elkarlaneko webgune gisa finkatu da, eta bertan aktiboki parte hartu dute ikastetxe kideak eta balio izan du ikasleen artean mezuak trukatzeko, ikastetxe desberdinen arteko trukaketa eta bisitetarako eta ikastetxe parte hartzaileen artean lankidetzaren loturak ezartzeko.

IKTak curriculumean txertatzea.

Gaitasun digitala ikastetxean ikusi behar da curriculumaren baitan modu orokorrean tratatu beharreko konpetentzia gisa. Lehen Hezkuntzan lan xede izaten ahal da lehenengo kurtsoetatik. Hasierako kurtsoetan egokia izanen da laguntza aplikazioak erabiltzea bestelako gaitasunak lantzeko, jolasak eta aplikazio didaktikoak adibidez.

Lehen Hezkuntzako kurtsoak aurrera doazen heinean Internet eta ordenagailua ikusiko ditugu ikasleek beren bizitzan eta eskolako lanetan erabiltzeko ikasi behar duten tresna gisa.


Gure ikuspuntua izan da beti IKTak hartzea gure ikasleen oinarritzko gaitasunak garatzeko lagunduko digun tresna gisa. Lehentasunak hartu dira testu prozesadorearen erabilera eta fitxategien erabilera, bai ordenagailu lokalean, bai ordenagailu lokalaren

eta alegiazko ikasgelaren artean, Interneten urruneko toki gisa.

Helburuak.

Ezaugarri hauek erreferentziatzen hartuz, ikastetxeen curriculumean sartu nahi dugu eskola egunkari baten edizioa Interneten, irakurriaren ulermenaren, testu idatziaren ekoizpenaren, audio eta bideo ekoizpenaren eta IKTaren tresnen erabileraren oinarritzko gaitasunekin zerikusia duten helburuak lortzeko:

- Testu idatziaren ekoizpena hobetzea.
- Testu literarioen ulermena eta interpretazioa hobetzea.
- Kazetaritza lanaren oinarriak ikastea hizkuntzaren arloaren ikuspuntutik.
- Ordenagailu pertsonala oinarritzko moduan ikastea erabiltzea (fitxategi eta karpetekin lan egitea, dokumentuak gorde eta berreskuratzea, etab.)
- Testu prozesadorearen oinarritzko moduan erabiltzen ikastea.
- Eskuerrak eta argazki-kamera digitala oinarritzko moduan erabiltzen ikastea, eta baita irudiak prozesatzea ere, bideo eta grabaketa txikiak egin ahal izateko ondoren webgunean erabiltzeko.
- Interneteko nabigatzailearen baten eta posta elektronikoaren bezeroren baten oinarritzko ezagutzak eskuratzea.
- Interneteko testuek izaten ahal duten irismena ulertzea, elkartzatua eta beste balio positiboak sustatze aldera: aniztasunari errespetua, jarrera ez sexistak, bizikidetzaren berezko balioak



- Ikastetxean egiten diren jarduerak kanpoan erakustea, hau da, gure herrian, gure ingurunean...
- Ingelesez eta gaztelaniaz ikusteko aukerarekin eskainiko diren artikuluko txikietan ingelesa erabiltzea.
- Alegiazko ikasgela erabiltzea, eskola presentzialen laguntza tresna gisa eta fitxategiak, inprimakiak, etab. erabiltzen ikasteko tresna gisa.

La tiza digital eta Atrapasueños, nola funtzionatzen dute?

Jarduera guztiak Interneten dauden egunkari digital baten edizioaren eta irati-instalazio baten ingurukoak dira, eta argitalpen mota horien ezaugarriak probestuz, aldioro eguneratuko dira kurtso desberdinek prestatutako eduki berriei.

Proiektuaren jarduerak, helburuak eta edukiak argitalpen honen ingurukoak izanen dira, arlo desberdinetako curriculumetan sartuta daude logikoki, bereziki hizkuntzaren arloan.

Era berean, arestian aipatutako helburuetarako, Atrapasueños-en alegiazko ikasgela erabiltzen da.

Gunearen deskribapena:

Eremu publikoa, aldizkariak:

Orrialde nagusiak guneari sarrera ematen dio, erdiko zutabeetan sortuz doazen berriak jartzen dira eta alboko zutabeetan jartzen dira gunearen toki desberdinekiko loturak, edo zerkusia duten orrialdeekiko, irakasleen blogegiko, eta abarrekiko loturak. Lotura horiek gunearen administratzailearen irizpideen arabera antolatzen eta jartzen ahal dira.


Administrazio eremua:

Eremu honetan solik tutoreak sartzen ahal dira, beraiek baitira atal desberdinetako berriak bertan jartzen dituztenak.

Eremu honetan gunearen administratzailearendako erreserbatutako zati bat bada, ondoak kudeatzeko: tutoreen altak eta bajak, atal berriak sortzea, etab.

Alegiazko ikasgela:

Moodle software libreko plataforma erabiltzen du; bertan sartzeko gunearen administratzailearen edo ikastetxe desberdinetako ikastaroen sortzaileen alde aurreko alta behar da. Bada mekanismo bat proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako kide ez diren erabiltzaileei baja emateko.



Sábado, 03 de Octubre del 2009

Atrapasueños-Atrapasueños

Un periódico digital de los alumnos de Educación Primaria

Alegiazko ikasgelan ikastaro kategoria desberdinak ezarri dira. Kategoria bakoitzak ikastetxe baten ikastaroak biltzen ditu, eta bada kategoria bat ikastetxe desberdinetako irakasleen dokumentazioa eta ikastaroetarako.

Hiru lan maila:

Ondokoetara bideratua:

- Literatura testuekin lan egitea, eskola ingurunearekin, herriarekin edo hurbileko inguruarekin zerikusia duten gertaera zenbaiten gaineko artikulak prestatuz.
- Aurreko gai horiei buruzko erreportajeak idaztea, Internet bidez zabaltzen ahal direnak.
- Herri bakoitzarekin edo hurbileko inguruarekin zerikusia duten pasadizoak, aho-korapiloak, esaera zaharrak eta denbora-pasak prestatzea, nahastea edo denbora-pasen gisako atalak sortzeko.
- Ordenagailua erabiltzeko teknikekin eta proiektu honekin zerikusia duten programak ikastearekin zerikusia duen lan oro.
- Ondoren aldizkarian argitaratuko denaren gidoiak eta maketak prestatzea.
- Ikasle gisa parte hartzea alegiazko ikasgelan prestatuko diren jardueretan.

Ikastetxeko irakasleen lanak hiru alderdi izanen ditu:

- Eduki literarioak, kazetaritzakoak, plastikoak eta informatikoak lanean ikasle taldeekin.
- Inplikazio maila desberdinetan, norberak bere burua nahasi nahi duenaren arabera, jardueraren eduki informatikoetan barneratzea, bai egitura fisikoa mantentzeko (informatika gela), bai argitalpena prestatzeko.
- Alegiazko ikasgelan parte hartzea ikastaroaren tutore eta sortzaile gisa.

Nola ebaluatzen dugu aldizkari digitalaren errendimendua?

Proiektuaren funtzionamenduaren adierazle nagusia da egunkari digitalaren eguneratzeen kopurua eta kalitatea. Interesgarria da ere neurtzea ziklo amaierako ebaluazioetan ikasleek proiektuan egindako ahozko eta idatzizko adierazpenaren lanen eragina lortzea, helburu horietan.

Beste adierazle bat da alegiazko ikasgelaren erabilera, erreferentziatzat hartuta sortutako kurtso kopurua eta ikasgelaren erabilera erregistroak.

Azkenik, kontuan hartu beharreko beste adierazle bat da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek ikasleen eguneroko lanean

duten integrazio maila.

Proiektuaren integrazioa ikasleen ikasketa programan.

Egunkari digitala ikasgelaren programazioan txertatu da, beraierako programazio espezifikorik diseinatzeko beharrik gabe.

Egunkari digitalaren erabilera ikasleen lanaren hedapen eginkizuna du batez ere, eta lan horien kalitatea hobetzeko akuilu da, horien izaera publikoa dela eta.

Hizkuntzaren eta inguraren ezagutzaren arloetan diseinatutako jarduerak badira, eta behin ikasleek jarduera horiek egin eta gero, egunkari digitalean argitaratzen dira.

Alegiazko ikasgelan laguntza ikastaroak daude, ikasgelan modu presentzialean lantzen diren curriculumaren arloetan laguntzeko.

Ikasleen parte hartze aktiboa proiektuan zehar.

Helburua da egunkariaren eduki gehiena, idatzia edo ahozkoa izan, ikasleek bidez grabatzea, ikastetxearen ingurunean, bere herri edo auzoari buruzko galekin. Soilik literarioak diren ekoizpenak ere, bere tokia dute ere aldeztu aurretik ikasgelan landu eta ondoren argitaratzen diren, kontakizunak poesiak, kritikak, etab.

Ikasleak idazki horien prestatzea eta sormen faseak burutu eta gero, euskarri informatikoan aurkeztuko ditu ondoren argitaratu ahal izateko. Argitalpen fasea ikastetxe bakoitzeko irakasle koordinatzailearen esku dago.

Alegiazko ikasgelaren erabilera ahalbidetzen du berau ikastetxetik erabiltzea eta urrunetik, hots ikasleen etxebizitzetatik eta abarretik.

Parte hartzen duten ikastetxeak .

Virgen de la Salud Ikastetxe Publikoa (Castro del Río. Kordoba)

Miguel de Cervantes Ikastetxe Publikoa (Guijuelo. Salamanca)

Garcilaso de la Vega Ikastetxe Publikoa (Madridejos. Toledo)

Marina de Cudeyo Ikastetxe Publikoa (Rubayo. Kantabria)

Hernán Cortés Ikastetxe Publikoa (Madrid)

Juan Fernández La Torre Ikastetxe Publikoa (A Coruña)


El Justicia de Aragón Ikastetxe Publikoa (Alcorisa. Teruel)

Gerónimo Belda Ikastetxe Publikoa (Cieza. Murcia):

Santos Justo y Pastor Ikastetxe Publikoa (Fustiñana. Nafarroa).

Aula virtual de
La Tiza Digital

Español - Internacional (es)



IKTak
Haur eta Lehen Hezkuntzan
IKASKUNTZA ERAIKIZ

IKTak hezkuntzaren esparruan txertatzeak berarekin ekarri du esparru didaktiko berriak sortzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta berau garatzen den inguruko kide guztiak zuzenean ukitzen dituztenak.

Teknologia berri bat erabiltzeak ez dakar berarekin berrikuntza prozesurik aldezturik hausnartu ez bada teknologia horiek, nola, noiz eta zertarako erabiliko diren, eta zeintzuk izanen diren gure ikasleek ikaskuntza prozesuan izanen duen eragina.

Argi izan behar dugu irakaslanaren oinarritzko helburua dela ezagutza eta ikasketa adierazgarria eskuratzea ahalbidetuko duten ingurune interaktiboak diseinatzea, teknologia ongi egiten jakitera bideratutako berezko osagarri gisa hartuta, eduki

edo baliabide didaktiko gisa.

Gure ikasleek, txikienean ere, berehala aurkitzen diote zentzua hizkuntza berriei; agian beti izan direlako beraienak.

Eta zergatik ez utzi beraiei teknologia berri horiek erabiltzen?

Gure ikastetxea, San Jorge, eskola inklusi-boaren eredu da, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren elementu aberasgarri gisa aniztasunaren balorazioan oinarritutako hezkuntza proiektuarekin, giza garapena laguntzen duena.

Proiektuak erabiltzen ditugu sortzen diren beharrei erantzuteko. Horietako bat (IKTak Haur Hezkuntzako ikasgeletan sartzea), bi etapak lotzeko erabili dugu (Haur eta Lehen Hezkuntza), ikasgelan egindako lanari

jarraipena emanez.

IKTak Haur Hezkuntzan: esperientziak ikasgelan.

"Ikastera jolasten gara eta jostatuz ikasten dugu". Hori izan da esperientzia horiek sortu dituen ideia.

Jolasak ez du mugarik, ez hizkuntzarik, ez arrazarik, ezta ideologiarik ere; nolabait esatearren, ikasgela guztiaren komuneko elementua da.

Egoera ludikoen bidez ikasi, sortu, eraiki eta heldu egiten gara, komunikatu edo gure sentimenduak adieraztea eragozten diguten mugarik gabe.

Eskolatzararen hasieratik (3 urte), ordenagailua ikasgelako beste elementu ludiko



bat da (Saguaren txokoa), ikasgelan txertatua beste edozein jostailu bezala. Ordenagailuarekiko kontaktua berehalakoa, naturala eta intuiziozkoa da eta ez du arazorik ekartzen ikasleendako.

Jolasa beti ikasketa egoera ororen oinarri hartuta, ikastera jolastu zuten eta jolasten ikasi zuten.

Egoera berriak sortu zituzten, elkarren arteko harremanak izaten ikasi zuten, baita partekatzen ere, sentimenduak eta ideiak adierazten, lehenengo ikasketei hasiera ematen....

Eta hori guztia ahalagirik gabe, betebeharririk gabe, borondatez, modu naturalean gustukoaren dutena eginez: jostatzea.

Gure papera? Prozesu honetan gidari izatea.

Beraien? Protagonistak izatea, bere ikasketen egile izatea.

Helburuak eta hezkuntzarekiko loturak:

Helburu nagusi gisa izanik teknologia berriak curriculumean sartzea, erronka handi hauek planteatu ditugu:

- Ordenagailua ikasgelaren baitako elementu ludikotzat hartzea, ikasketa prozesuaren laguntza gisa.
- Ikasleei sarean nabigatzen erakustea, beralendako espresuki sortutako aplikazio erraz baten bidez, ikasleek infor-

mazioa bilatzeko eta hautatzeko irizpideak garatuz eta Internet zentzuzko modu batean erabiltzen erakutsiz.

- Ahalmen sortzailearen, talde lanaren eta baliabide pertsonal eta materialei errespetuaren garapena.
- Modu hezitzailean erabiltzea bere jolas eta aisialdi aukerak, material egokiak hautatuz eta material horiek eskola jardueretan txertatuz.
- Beren autonomia sustatzea, aurea hartzea, planifikatzea eta beren jardueri segida ematen erakutsiz; hori guztia egoera errazak ebazte aldera.
- Teknologia horien erabilpenerako egindako proposamenetan aktiboki parte hartzea besteekin batera, funtzionamendu arauak

errespetatuz eta onartuz.

- Haur Hezkuntzaren mailatik jardutea, ondokoa lortzeko: alde batetik EKTetan benetako hastapen goiztiarra egitea, eta bestetik, baliabide teknikoaren erabilpenean desabantaila egoeretan elementu konpentsatzaile gisa esku-hartzea, eta modu aringarrian, kultur pizgarri batzuen falta dela eta.

Jarduera ildoak:

Gure proiektuetan gauzatu diren hasierako proposamenetatik abiatuta, elkarrekiko paralelo eta lotuta dauden hiru jarduera ildo proposatu ditugu:

Lehenengo zatia

Ordenagailua Haur Hezkuntzako baliabide didaktiko gisa, bertan sartzea ondo koetan oinarrituz: modu egokian programatutako eta curriculumean txertatutako jardueren bidez, programatutako Txokoak, Tailerrak eta Proiektuak erabiliz.

Hezkuntza softwarearen gaineko ikerketa (Programa multimedien erabilpen didaktikoa ikasgelan), prozesu honen emaitzak islatzen ahalko dituzten dokumentuak sortuz (Hezkuntza softwarearen ebaluazio fitxak eta Ikaslearen banakako jarraipenaren fitxak).

Bigarren zatia:

Gure ikasleei Interneten nabigatzen hasten erakustea modu ludikoan, aplikazio errazen bidez, ingurune seguru batean,

“benetako eskola” (ikasgela) “eskola birtualarekin” (ikastetxearen webgunea) txandakatuz.

Hezkuntza webguneen testuinguruaren arabera ebaluazioa eta erabilpena egitea ikasle taldearen ezaugarriak definituz, beren balizko hezkuntza ekarpenak identifikatuz, zenbait alderdi pedagogikoren gainean hausnartuz, hezkuntza webguneen lehenengo ebaluazio oinarri bat prestatuz (Hezkuntza webguneen katalogio eta ebaluazio fitxa).

Hirugarren zatia:

Ikaskuntza erakiz: egindako tailer, webquest eta proiektuetan azaleratu diren proposamenen bidez, beren autonomia sustatuz, aurea hartzea, planifikatzea eta beren jardueri segida ematen erakutsiz; hori guztia egoera errazak ebazte aldera.

Ikasketa elkarlanean, “eTwinning” proiektuetan parte hartuz.

Metodologia, gako diren hiru hitzetan laburtuta:

-Aktiboa, ahalbidetuz ikaslearen jardura bera izan dadila aurkikuntza eta ikasketa ororen motorra.

-Ludikoa, jolasa haurren oinarritzko jardura delako, batez ere Haur Hezkuntza, honen bidez aurkitzen baitu haurrak bera inguratzen duen mundua.

-Parte hartzailea, proposatutako egoeren bidez ikasleari ahalbidetu baitio ikaskideekin lankidetzan aritzea, erabakiak hartzen ikastea, ardurak txikiak hartzea, eskola bizitzan parte hartzea eta bere ikasketaren egile izatea.

Jarduerak egiteko modua: Txoko, Tailer eta Proiektuen bidez.

Malgutasuna funtsezko irizpidea izan da denboraren banaketan, ikasleen beharretara egokitzuz, prozesuaren jarraipen indibidualaren eta ikasleen taldekako portaeraren hautemate bat eginez.

Laburpen gisa:

Teknologia berri bat erabiltzen hasteak berarekin dakar horietan murgildu ahal izateko ohitura berriak eta prozedurak sortzea. Honek ekarriko du gure ikaskuntza ezagutza guztiaren berrikustea.

Hau izan da esperientzia honekin hasi garenean egin behar izan dugun planteamenduetako bat: konpromiso bat ikasgelako errealitatearen aldaketarekin, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza jarri eta ikasketa materialen berrikus-



pena, jakiteko zein neurritan hobetzen ahal den gure ikasleen hezkuntzaren kalitatea.

Esperientzia horiek hasterakoan hiru erronka handi jarri genizkion gure buruari:

Haur Hezkuntza mailatik jardutea ondokoa lortzeko: alde batetik teknologia berrietan benetako hastapen goiztiarra lortzea, eta bestetik, gizarte desberdintasunen elementu konpentsatzaile gisa esku-hartzea.

Egungo software eta webguneetan ikertzea, gaitasun, ohitura edo trebetasun batzuk garatzeko erabilgarriak izaten ahal diren programa, aplikazio eta orrialdeen gaineko ondorioak ateratzen saiatuz.

IKTak ikasleekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko eskaintzen dituzten aukerak baliatzea eta erabiltzea; horretarako, gure ikasleen adinerako egokien izanen diren komunikazio tresnak erabiliz, egoera berriak sortzea ekarriko duten lankidetzaren proiektuen bidez, ondokoak ikasiz: beraien artean harremanak izaten eta besteekin komunikatzen (urruneko eremu fisikoetan), partekatzen, sentimenduak eta ideak adierazten eta lehenengo ikasketak hasten.

Esaten ahal dugu ahaleginari eta talde lanari esker gure helburua lortu dugula.

Lana gogorra izan da, zabala, eta taldekide bakoitzak ahal zuen neurrian lagundu du.

Gure ikasleek, kasu gehienetan, uste genuena baina hobeki erantzun dute, inguru berri honetan modu naturalean sartuz.

Emaitzak hor daude, ikasgeletan, irakasleen eta ikasleen elkarlanean, beren ekoizpenetan eta gure irakaslan jarraitu, hobetu eta hedatzeko itxaropenetan.

Inpresio pertsonalak ikasgelaren egunerokotasunean:

Urte hauetan zehar asko izan dira beste etapa batzuetatik Haur Hezkuntzara iritsi zaizkigun galderak; hain txikiak diren ikasleen ikasgeletan IKTak sartzearen aukeren, abantailen eta eragozpenen inguruan.

Erantzuna: ordenagailuak ez du irakaslea ordezkatuko, ezta ikasgelako material tradizionalak ere, baina ikasleen motibazioa nabarmenki hobetzeko osagarria izaten ahal da.

Baina txikienendako aukera da ikasketa, komunikazio eta abar berrietara iristeko. Ikasgelako errutinan aldaketa ekarri du; eguneroko gauzak ikusi eta egiteko beste modu bat; eta hau beste etapetako ikasleei ere aplikatzen ahal zaie.

Zaila da hitzekin adieraztea beraiekin bizitako sententzioak eta esperientziak; ordenagailuaren aurrean ikasleak ikus-tea, adi, proposatutako jardueretan murgilduak, elkarri laguntzen, zailtasunak gainditzeko, hesiak apurtuz, espazioan zehar bidaiatuz eta, guretako ulertzen zailena dena, zenbateko naturaltasunez aritzen diren baliabideekin elkarrekin, hizkuntza berri hau integratzeko ahalmena, eta aldaketetara egokitzeko arintasuna.

Beste behin ere ikasturte honetan gure proposamenekin jarraituko dugu, proposamen horiek egunerokoaren errealitate egokituz.


Gure "itsasmutil txikiak" graduz igotzen ari dira. Horietako askok ikastetxeak utzi eta itsaso handietan bere kasa nabigatzen dute.

Eta azkenik, ondokoa oroitarazi: beldurra galdu behar diogula hurbileko etorkizun horri, egunero errutinatik atera behar dugu, bizitzan dena ikasketa dela ulertu behar dugu; bizitza eskola iraunkorra dela; garrantzitsua ez dela "ikasten irakastea" baizik eta "irakasten ikastea"; gure ikasleak baitira irakasle nagusiak, askotan erakusten digutelako jarraitu beharreko bidea eta bere bidea aurkitzeko gidari gisa behar gaituztelako eta, azkenik, pentsatzea teknologia dagoeneko gure bizitzaren zati dela.

Zergatik ez eraman ikastetxera?

San Jorge IPko webgunea: <http://irati.pnte.cfnavarra.es/cpsanjorge/joomla/>





NI ES NAIZ BLOGARIA

Ion Rey

Iruñeko Iturama Derrigorrazko Bigarren Hezkuntzako Institutuko irakaslea

Artikulua hasi nahi dut baieztapen biribil honekin: ni ez naiz blogaria, ez ditut blogak erabiltzen nire iritziak idazteko ezta nire esperientzien berri emateko. Eta hala ere, etengabe erabiltzen ditut.

Blogekin nire lehenengo esperientzia izan zen geldiezina zen zerbait zela entzutea, bitakorak, egunkari pertsonalak. Harritzen ninduen horrelako arrakasta izateak. Eta, behin batean, blog batean saltsan ari nintzela, berotzen hasi nintzen, planak eta proiektuak egiten. Zer gertatu zen? Nigan oso ohikoa den zerbait: institutuan egiten dudana lanerako tresna indartsua eta erabilerraza aurkitu nuela. Eta blogak nire hezkuntza helburuetarako egokitzeari buruz hausnartzen hasi nintzen.

BLOGAK MAITE DITUT. Bai, maite ditut, nahiz eta blog pertsonalik ez izan nire iritziak erakusteko. Gezurra irudituko zai-zue, baina orain, artikulua hau idazten ari naizenean, blogak zergatik maite ditudan kontzienteki aztertzeke lehenengo saioari ekin diot. Zerk egiten ditu hain indartsu?

INTERNETEN DAUDE. Eta horrek abantaila ugari dakar. Adibidez,

ikasleen koadernoetatik askoz eskuragarriagoa den "koaderno" orokor batera igarotzea, ikasgela bateko arbeletik (institutu bakar batean, hiri bakar batean) mundu mailako "iragarki oholera" igarotzea.

Igarotzen ahal gara koadernoak bizkar-zorroan gordetzetik "gorde" botoia erabili-

tzera, apunteak non ote dauden arduratu gabe, ikasgelako arbela ezabatzean

azalpen on batzuk galduko ote diren kezkarik izan gabe.

EZ DUT KONTROLATU BEHAR NOLA GORDE EDUKIA.

Blogak erabilgarri daude 24 orduetan, 365 egunez, munduko edozein ordenagailutatik.

ERABILGARRI DAUDE EDONONDIK ETA EDOZEIN ORDUTAN

EDUKIAK SORTZEA ERRAZA DA. Lehen ere baziren web orriak eta baita

internet ere. Orduan, zein izan da blogak egin duten ekarpena?

Oso erraza da edukia sortzea eta, nahikoa da publikatu botoia sakatzea, dagoeneko interneten eskuragarri izateko. Ez da deus gehiagorik behar.

Gainera, **ERRAZA DA EDUKIA ANTOLATZEA.** Praktika pixka batekin sortzen ahal dira eduki kategoriak, menuak, aurkibideak...

Eta, gainera, **ERRAZA DA BILATZEA** argitaratu duguna, blog guztiek barne bilatzaile bat berarekin dakartelako.

Bigarren maila batean, blog askok ahalbidetzen digute kontrolatzea baimenen bidez ikasleek zer idatzi, ikusi, aldatu eta ezabatzen ahal duten. Horrela, tresna honen bidez ikasketa prozesua pertsonali-

zatzen ahal dugu. Nire ikasleek ere beren edukia sortzen dute, baimenen kontrolpean.

ONDOKOETARAKO ERABILTZEN DITUT

- Nire lana erakusteko.
- Nire ikasleen lana jasotzeko eta prozesatzeko.
- Beraiek erabakitzen ahal dute etxean lan egin nahi duten.
- Emaitzak azkarragoak eta eskuragarriagoak dira.
- Ariketak sortzea ordenagailu bidez.
- Lan erritmoa librea da.
- Ordenagailua ez da inoiz nekatzen zuzentzeaz.
- Zuzenketa automatikoa da.
- Erabiltzen ditut eta ikasgelako beharretara egokitzen ditut.

GUSTATUKO LITZAIDAKE GUZTIOK BLOGAK ERABILTZEA, baina ez da hain erraza. Nahiz eta niretzat agerikoak diren eskaintzen dituen abantailak eta erabiltzeko erraztasuna, profesional askoren maila informatikotik urrun geratzen dira, eta beraz garrantzitsua da, oso garrantzitsua, profesional horiek blogetara hurbiltzea.

BLOGAK INSTITUTUETAN SARTZEKO PROZESUA. Gure institutuan, multiblog moduko b2evolution tresna eskuratu eta gero (menuen bidez elkarren artean lotu-

tako blogak sortzea ahalbidetzen du eta baita lanabes ugari erabiltzea ere), beste erakustea eta erabiltzen hastea egokitu zitzaigun. Horretarako egokien eta eraginkorrenzat jotzen dena egin genuen:

Ikastaro bat, irakasleek tresna hori erabiltzen ikasteko. Porrot handia izan zela esatea gehiegi litzateke, onartzen dut. Baina egia da. Nahiz eta ikasle taldea handia izan eta blogak egiten ikasi, nik dakidala ikastaro horretatik ez zen inolako blogik sortu.

Eta hala ere, bizirik dauden blog ugari dago. Baina horien sortze prozesua desberdina izan da:

KASU ZEHATZAK...

1. Irakasle batek apunte batzuk ditu eta ikasleen eskura jarri nahi ditu. Horretarako ez dago ezer hoberik ikasgaiaren blog bat sortzea baino, eta bertan apunteak jartzea! Baina bere apunteak powerpoint-ean daude eta, beraz, afera ez da hain erraza.

Irakasle horrek behar bat du eta blogak behar hori asetzen ahalko lioke, baina berarendako ezinezkoa da hori egitea. Ni arduratu naiz apunteak argitaratzeaz. Horrela lortu dut, gutxienez, berak ikustea apunteak argitaratzeak merezi duela (bisitak zenbatuz eta ikasleek apunteetan dauden akats txikiez egindako kexei esker). Eta, dagoeneko ikasturte berri honetan ikastaro pertsonal txikia izan dugu Pdf-ak igotzen eta horiek blogari lotzen ikasteko.

2. Gimnasia irakasleak kirol txapelketak antolatzen ditu jolas-orduetan eta bertan ia ikasle guztiek hartzen dute parte. Adierazi nion ongi egonen zela horiek web orrian azaltzea, txapelketa bakoitzerako berariazko blog batean. Ideiarekin pozik dago eta excel dokumentu bat helarazi dit, emaitzen eta sailkapenen taulekin. Nire helburua ez da horrenbeste izanen bere excel taula bihurtzen irakastea, baizik eta blogak erabiltzen hastea. Horrela, bere bloga sortu eta taula artikulua bihurtu ondoren, emaitzak sartzen eta gordetzen irakatsi diot. Lortu du, artikulua editatzen ikasi du eta gerorako utzi dugu bere artikulua taulekin sortzea.


3. Musika irakasleak blog bat nahi du, zuzenean. Informatikako maila badauka eta azalpen xume batzuekin ez zaio ezer kostatu bloga abian jartzea. Denborarekin galdetu dit posible ote den bertan musika jartzea eta blogatik entzutea.

Nola egin azaldu diot eta hortik aurrera bera arduratu da bere audio fitxategiak argitaratzeaz. Denborarekin, gainera, bururatu zaio ikasleek iragarkiak sortzea eta blogean argitaratzea. Ikasturte amaie-

ran, jardueraren ebaluazioan, aipatu zidan i internetetik erantzuteko probak egin nahi zizkiela ikasleekin. Ikastaro txiki bat egitea adostu genuen.

4. Historia eta Arte irakasle batek bere materiala erakutsi ezin duela eta, ke-xaka ari zen, ordenagailuan duelako eta kanolari lotuta duen ordenagailura igartzeko baldintza egokiak ematen ez direlako. Aukera hori baliatuta eta interneten jartzea proposatzen diot, horrela bere apunteak edonondik eskuratu ahal izateko. Proposamena onartzen du eta Word-eko apunteak dituzten bere dokumentuak bidaltzen dizkit. Bloga sortzen dut horretarako eta berarekin errepasatu egiten dut. Artikuluetako gauza batzuk nola aldatu irakatsi diot, baina denbora falta eta "zailtasuna" dela eta, gerorako utzi dugu blogak erabiltzen ikastea. Epe ertainera nire helburua da artikuluetan argazkiak txertatzen erakustea.

5. Nire ekimenez Gurasoen Elkarteko kideekin harremanetan jarri nintzen eta gure web orrian beraientzako txoko bat irekitzea proposatu nien. Beraientzako bloga sortu nuen eta artikulua argitaratzen irakatsi nien. Azalpen txiki horiekin, blogak bi urte darama abian eta bertan argitaratzen dira gurasoen bileretako akta guztiak. Badirudi blogean dinamika bizia goa sartzeko baldintzarik ez dagoela (gure artean harremanetan egoteko denbora eza, batez ere).



Beste blog batzuek (teknologia, argazkigintza digitala, eskulturak, irakasleek irakurritako liburuak, ipuinak, hizkuntza ariketak, idazkaritza, amodiozko gutunak, etab.) ibilbide desberdinak dituzte.

Arestian aipatu dizkizuet nire institutuan izan diren 5 kasu. Kasu guztietan irakasleek beharrek bloga izan dute konponbide. Baina, musika irakaslearen kasuan izan ezik, horietako bat ere saltzen ez naiz saiatu. Eta agian irakasle horietakoren batek ez daki zer diren. Nire jokabidearen arrazoi argia da: blogak gure lanerako oso tresna erabilgarriak direla erakustea, baina ezin ditut tresna horiek "saldu" irakasleek gutxieneko ezagutza informatiko bat dutela bermerik izan gabe, eta batez ere, erabiltzeko BEHAR BAT, HELBURU BAT izan gabe. Gainera, nire departamentuaren esperientzia daukat, bertan irakasle bakoitzarendako blog bana sortu bainuen eta baita erabiltzen irakatsi ere. Blog horiek guztiak hilik daude. Tira, positiboago izatearren, blog horiek "lotan" daude, beharra dagoenean berriro abiarazteko.



Beste adibide bat. Blog sistema bat instalatu dut bi ikastetxeetan. Horietako batean jarduera oso txikia da eta irakasleek ia ez dituzte blogak erabiltzen. Bestean, ordea, arrakasta erabatekoa izan da, eta hogeii irakasletatik hamarrek erabiltzen baitituzte blogak.

Zein da bi ikastetxe horien arteko aldea? beharra eta maila informatikoa.

- Lehenengo, ikastetxean web orri bat behar zuten, baina ematen du eskaera hori zuzendaritza taldearena izan zela soilik.

- Bigarren ikastetxean alde aurretik aldizkari digital bat zuten lehendik, baina askoz dinamikoago zen zerbait behar zuten, edukiak argitaratzeko prozesua askoz malguago izateko, eta ahal delarik, ikastaro txiki baten ondoren, ekimen honen barruko irakasle guztiek on-line edukiak sortu ahal izateko laguntzarik gabe, modu autonomoan. Instalatu nien blog sistemak bikain betetzen du eginkizun hori.

BEHARRA ETA MAILA INFORMATIKOA.

Aukeratzen jarrita, nahiago dut irakasleek zerbaiten beharra izatea. Zeren eta, gure institutuan gertatu zen gisan, irakasle talde batek blogei buruzko ikastaro bat egin arren, eta beraz, nolabaiteko maila informatikoa eskuratu zuten arren, horrek ez zuen ekarri blog eskaera berririk, eta ekarri zituen bizirik dauden hildako bizidunak diren bitakora eskaera batzuk.

Beraz, eta ondoko esaldira itzuliz: GUSTATUKO LITZDAIKE GUZTIEK BLOGAK ERABILTZEA; ideien zerrenda bat aurkeztuko dut blogak sartzeko prozesua arrakastatsua izan dadin.

EZ IZAN PRESARIK BLOGAK SARTZEKO. Blogak gure lanerako tresna indartsuak direla argi izan arren, hori dira bakarrik: tresna, ez helburu...

IRAKASLE BAKOITZAREN BEHAR PERTSONALETIK ABIATU BETI.

Hau argi ikusten da jarri ditudan adibidee-

tan. Irakasle bakoitzak gauza desberdinetarako eta erabilpen maila desberdinetarako beharko du bloga: oilik apunteak gordetzeko, ariketa interaktiboak sortzeko... Blogak sakontasun maila jakin batez eza gutzen ditugunok badakigu ahalmen zabalagoa dutela eta horrekin berotzen gara. Baina gure lankideak konbentzitzen saiatzea iruzkin dinamikoak, adibidez, erabili ditzaten, kalterako da nire ikuspuntutik, beraiek soilik apunteak eskegitzeko beharra badute.

KONTZEPTU BERRI GUTXI. Eman ditudan informatika ikastaro apurretan ikusteko aukera izan dut nolako aldaketa sortzen den, animatzen naizenean eta zerbait azaltzen hasten naizenean ematen den talka, adibidez, lehenengo blogak, ondoren interneteko helbideak, ondoren irudiak, ondoren.... Nire ikasleen aurpegiak ilusiotik larritasunera igarotzen dira. Nire ustez, larritasun honen arrazoia da niretako "erazak" diren kontzeptu batzuk erakusten saiatzen ari naizela, baina kontzeptu horiek, beraiendako guztiz "berriak" dira. Eta edozein ikasle, bigarren kontzeptu bat azaltzetik aurrera, denbora behar du hausnartzeko eta integratzeko; eta ez naiz bakarrik ari kontzeptu horietan pentsatzeko denboraz, tarteko denboraz ere ari naiz, deskonektatzeko asteburu batez, kontzeptu horiek jalki daitezen.

NORBAITENDAKO ERRAZA DENA MUNDU BERRI BAT DA ASKORENDAKO.

Informatikarekin hain zerikusi gutxi duen enpatia kontzeptuaz ari naiz, ikasle heldu baten tokian jartzen saiatzea. Eta kontuan izatea ez dela soilik "erraza" edo "zaila" izatearen kontua, baizik eta ideia edo prozedura berriak bereganatu, praktikatu eta lantzeko aukera ematea.

Amaitzeko, gustatuko litzaidake planteatzea BLOGAK BENETAN BEHAR OTE DITUGUN. Galdera egite hutsa burugabekeria da batzuek. Niretako beti kontuan izan nahi dudana ideia da. Ez gaitezen moda batengatik eramaten utzi.

Ondokoa da zalantza nagusia: blogak moneiatzen ikasteko denbora asko behar badugu, eta agian gehiago materialak

sortu eta berau erabiltzeko, eta are gehiago baliagarriak izaten ahal diren beste internauta batzuen esperientziak ezagutzeko, gure lanerako benetan onuragarriak dira?

Zalantza honi nire ohiko erantzuna izanen litzateke blogak, edo zabalagoa, interneten erabilpenak, eskaintzen digutenaren inguruko hausnarketa egitea

Gure irakaslanetik hurbilen dauden arrazoiak ondokoak dira:

DENA DAGO GUZION ESKURA

EDOZEIN ORDUTAN

EDONONDIK

GAUZA INTERESGARRI MORDOA erakusten uzten digu

ONDOKOA LORTZEN DUGU

GURASOAK HARRITU EGITEN DIRA

IKASLEEK BERE BURUA BALORATZEN DUTE

IRAKASLEEK ERABAKITZEN DUTE KOPIATZEN DUTEN ALA EZ

Eta hala ere, irakasle askorendako argudio horiek ez dira baliagarriak eta uste dut horren arrazoia dela lanean ordu gehiago eman beharko dituztela sentitzen dutela. Eta niri kosta egiten zait argudio horri aurre egitea (saiazen naizen arren), nire adibide berak arrazoia kentzen didalako. Blogei esker lan egiten dut (hobeki esanda, disfrutatzen dut) eskola ordutegian, asteburuetan, oporretan, etab.

Panorama honen aurrean, uste dut blogak maite ditugunon lana ordu asko ematea dela, lankideei eskaintzeko gero eta erabilerrazagoak izanen diren lanabesak, lana eta denbora aurrezte aldera eta irakaskuntzaren kalitatean jauzi kualitatiboa ekarriko dutenak. Eta horregatik maite ditut blogak...





Hozkuntza eta Internet

33.zk

2009ko abendua

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA